



MAXIXATZEN

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ GUKA ALDIZKARIA



ESKLEROSIA

IKERKETAN DUTE ESPERANTZA



INNOVA

AZPEITIA

HORTZ KLINIKA



BEHAR DUZUN HORI
EMAITZA ONENAREKIN

Jose Artetxe 5
📞 943-02 59 55

...erantzuna gara ...ALBERDI gara

 **ALBERDI**
INMOBILIARIA

943 16 98 78

info@alberdi-inmobiliaria.com
Trenbidearen Zumardia, 3 AZKOITIA

Idiakez Ederra

Idiakez Ederra Sustapen Berria.

Obrak hastera doaz!



Giltzen entrega
2024ko udan.

Zatoz eta aukera
ezazu gustoko
etxebizitza.



www.alberdi-inmobiliaria.com



MAXIXATZEN 424

2022-URRIA

AZALEKO IRUDIAREN EGILEA:

IÑAKI MARTINEZ ALBIZU

Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Ane Olaizola, *Tonbola eta loteria.*
- 6 **Hitz bitan** Hortensia Macia, gozogilea.
- 8 **Izpiak eta hizkiak** Ainhoa Beristain, *Aro berrietara saltoak.*
- 10 **Iritziak** Joseba Epelde, *Ez dakit;* Yolanda Larrañaga, *Barrura begira.*
- 12 **Erreportajea** *Esklerosiak, mila aurpegi.*
- 18 **Iritzia** Lander Albizuri, *2+2=5.*
- 19 **Iritzi grafikoa** Itxaro Iraeta.
- 20 **Elkarrizketa** Arantxa Aldalur, komunikatzailea.
- 24 **Zakelmari.**
- 26 **Erretratua** Tibalt Alberdi, gitarra irakaslea eta okina.
- 30 **Plazan bazan**
- 32 **Atzera begira.** Gurea, *azkoitiarrez egitea.*
- 36 **Erreportajea** *Agur, Elosuko mendi ganadu feriar.*
- 40 **Klik!** *Puntarik punta.*
- 44 **Iritzia** Maite Lopez, *Hitz politik.*
- 46 **Euskara** Aitor Arruti, *Ilargiaren ezkukuto alde.*
- Bertsoa paperean.**

MAXIXATZEN

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPETIA
943-85 36 17
maxixatzen@maxixatzen.eus
www.maxixatzen.eus

Erredaktoreburua

Ane Olaizola
Erredaktore taldea
Anartz Izagirre
Andoni Elduaen
Ane Olaizola
Nerea Uranga

Diseinu arduraduna

Iñaki Martínez Albizu
Publizitate arduraduna
Egoitz Azkoitia
Zenbaki honetako kolaboratzaileak:
Ainhoa Beristain
Joseba Epelde

Yolanda Larrañaga
Lander Albizuri
Itxaro Iraeta
Miren Elorza
Gorka Larrañaga
Kepa Alberdi
Maite Lopez
Aitor Arruti

Iñaki Tolosa Alberdi.

Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-706/97
ISSN: 1137-8891
Tirada: 1.000 ale

TOKIKOM



Gipuzkoako Foru Aldundia



AZKOITIA
Udala



maxixatzen
euskaldunon elkartea

PUBLIZITATEA



YOKOKIROLAK
www.yokokiolak.com
Kale nagusia 90 - Azkoitia

EGUZKI
belardenda
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia 67 943-50 34 47 **AZKOITIA**
Urbaste 9 bis 943-15 00 23 **AZPEITIA**

Web proiektuak
Software ingeniariatza

elkarmedia()

info@elkarmedia.eus
943-85 08 74

etk

Informatika Zerbitzuak
943-02 63 29
www.etkinformatika.com



arkitekтураestudioa
santaklara kalea 35 | 943083487
www.brarkitektura.com



Iturriondo, 7 • 943-02 56 88
Kale Nagusia, 57 • 943-85 20 91
AZKOITIA



NAGUSIA 81 • 943-08 30 32
www.tta-kun.com • azkoitia_ttakun@hotmail.com



Kale Nagusia, 41 • 943-10 52 62

**ETXEZA
TABERNA**

Etxeiza Ebroa, Z/G. • 943-85 20 31

artelan

Txostea, Asteategia
Tel. 943 08 18 41
fax. 943 08 18 44
943 07 98 84



- MOTOZIKLO
- Olio-pinturak
- Aluakola
- Pastelak-pinturak
- Ikoiz
- mazonkaria
- Zeramikak
- Plasterak
- Estukak

zur

OGIBARTERDIAK
SANDWICHAK ETA HAMBURGESAK
ENTZALAK
PASTELAK
GARRAGARDO ETA ARDO ESKANTZA ZABALA
TERRAZA HANDIA ZUZENBKO EMANALDIAK

KALE NAGUSIA, 68 • 943-85 12 75

LATZ
TABERNA

ARTISAL PIZZAK
ENTZALAK
PASTELAK
PLAZER KONBINATURAK
PASTELAK
OGIBARTERDIAK
ARDO ESKANTZA ZABALA
SOLBU ETA ANGI GAZPA
PANELEARRAK
LANTURDIAK ETAN 06:00 ARTEN IRENTZIA

KALE NAGUSIA, 55 • 943-85 13 19



ALDAKO

**SARE ETA INFORMATIKA
ZERBITZUAK**

SAREAK, IRTEERAK ETA
ORDENAGAILU, MUGIKOR
ETA TABLET KONPOKETAK

Kale Nagusia, 46 • 20720 Azkoitia
Tel. 943-08 36 14 • 629 09 92 76
aldako.informatica@gmail.com



% 50 baino gehiago salduta
IBAIONDO BERRI

ARANBARRI
INGURUGAIK

www.aranbarri.com

Tonbola eta loteria



ANE OLAIZOLA

Kasualitatez iritsi zait eskuetara aspalditik irakurri nahi nuen liburua. Oporretara eraman dut, dagoeneko onartua baitaukat gainontzeko urte sasoiari hirugarren orritik aurrera itzarri mantentzeko gaitasuna galdua dudala. Espainia hegoaldean igaro ditugu atsedean egunak, hotel eder bateko igerilekuan gozatu ditugu goizeko eguzki printzak eta hondartza amaigabeetan hartu gaitu ilunabarrak. Bizimodu idiliko horretara errazegi ohitzen ari naizela ohartzerako, ordea, belarrondoko ederra eman dit liburuaren protagonistak: Ibrahima Baldek.

Adi, spoilerrak datoz, baina Baldek bizi izandakoa ezagutzea nik jaso dudan zaplastekoa adina beharrezkoa izango zaizuelakoan nago. Balde ez da fikziozko pertsonaia bat, hezur haragizkoa da, eta Amets Arzallusen eskutik *Miñan* liburuan kontatu du hark anaia txikiaren bila Afrikatik Europara egindako bidea: Ginea, Liberia, Mali, Libia, Aljeria, Maroko; idazten jakin ez baina akademiatik igaro den beste askok baino kontakizun aberatsagoa duen horrek esplikatu dio kazetariari milioika kilometroko odisean jasan zuena: basamortua, mina, muga, gosea, beldurra, errua. Eta deshumanizazioa: polizia, mafia, preso hartzea, bahiketa, esklabutza, tortura.

Oporretan egon garen herritik kilometro gutxira lehorreratu zen Balde, gu jolaserako busti garen itsaso beretik. Hortaz jabetu berritan, edonismoa harnas zitekeen hondartzako taberna bateko horma izkin batean ikusi nuen *Menak gure auzotik kanpora* zioen afixa. Han ere zenbaitek hegoaldeko mugaz bestalde bizi dituztenak ez dituzte ongi etorriak, baina Magreben ere ez beren azpiko herrialdetakoak –hori erakusten du Baldek bere kontakizunean–, eta horrela segi genezake, Lurraren oin beltzenera iritsi arte.

Haiekiko ezaxolan gabiltzan bitartean, Afrikako milaka pertsonen hartua dute *tonbolan* jokatzeko bide desesperatua. Itsasoa, hori da tonbola haientzat: "Zuk badakizu jende asko ez dela bestaldera iristen, baina libiarrak *yallah yallah* esango dizu. Itsasoa zakarra bada ere berdin dio, zodiakari sakatzen segituko du. Hark nahi duen bakarra da zodiaka jendez betetzea, eta gainezka egiten badu nahiago". Baldek ondo baino hobeto daki itsasoa ez dela inor esertzeko lekua.

Hitzok barneratu nahian nabilela jaso dut gertuko baten deia, eta herriko festetako kontuen berri eman ondoren eskatu dit ea oporretatik loteriaren dezimo bat eramango al diodan. Gizajoak gu, horren gosez bizi garela, loteria jaio ginen egunean suertatu zitzaigula jakin gabe; bizitzan dugun guztia, heziketa, lana eta osasuna barne, mapan kokatu gintuen zoriari zor diogula presente eduki ezinda. ■■■

**OPORRETAN
JOLASERAKO BUSTI
GAREN ITSASO
BERETIK LEHORRERATU
ZEN BALDE**

"Gustuko dut fondantarekin estaltzen diren tartak egitea"

TESTUA ETA ARGAZKIA: **ANDONI ELDUAIEN**

Duela hiru urte iritsi ziren Venezuelatik Azkoitira Hortensia Macia (Caracas, 1962) eta haren senarra. Alaba Azkoitira etorria zen bizitzera, eta Madrilerako joana zen semea. Haiengandik gertuago egon nahi zutelako lekualdatu zen bikotea. Egun, Galipan tabernako gozogilea da Macia.

Caracasen jaioa zara. Noiz iritsi zinen Azkoitira eta zer arazoik bultzatuta?

Duela hiru urtetik bizi gara Azkoitian. Lehen aldiz Gabonetan etorri ginen herria bisitatzera; izan ere, alabak Azkoitiko familia duen mutil bat ezagutu zuen, eta aukera berriak probatzeko herrira etortzea erabaki zuten. Semea, berriz, Madrilen bizi da. Senarra eta biok bakarrik gelditu ginen Caracasen, eta seme-alabengandik gertu egon nahi genuenez, hona etortzea erabaki genuen.

Ondo egokitu al zara herrira?

Azkoitiaren aldean handia da Venezuela, baina, bai, ondo egokitu naiz. El Avila izeneko mendi bat dago Caracasen, eta mendi horren zati batek Galipan du izena. Hasieran, gutxi oroitzen nintzen Caracasekin, baina gerora, gehiago. Izarraitz mendiak eta El Avilak antzekotasun handiak dituzte, eta horregatik, sarritan ateratzen naiz balkoira Izarraitzi begiratzera.

Zer iritsi duzu Azkoitiaz?

Herri ederra da. Hiru urteotan asko paseatu dugu inguruan, eta herri polit asko ezagutu ditugu Gipuzkoan. Azkoitiak, ordea, xarma berezia du.

Venezuela gogoan izango duzu sarritan. Zeren falta sumatzen duzu?

Familiako venezuelar bakarra naiz, baina nire bizitzan han dago, han jaio eta hezi bainaiz. Hango bizitzeko modua, lagunak, ohiko eginkizunak... Horren guztiaren falta sentitzen dut. Azkoitira ailegatu nintzenean, ordea, hango etxearekin oroitzen nintzen gehien.

Tartak egiten hasi zinen Azkoitian. Zergatik?

Betidanik asko gustatu izan zait tartak egitea. Hala eta guztiz, ezin izan diet nahi beste denbora eskaini horiei. Duela bost urte edo, gozogintza

ikasketak egitea erabaki nuen, akademia baten izena emanda. Gauza berriak ezagutu nituen eta horiek egiten hasi nintzen poliki-poliki. Caracasen pastetan espezializatutako jatetxe bat genuen, eta han hasi nintzen postreak egiten. Azkoitira etorri ginenean, Galipan tabernan hasi nintzen laguntzen, gozogile lanetan. Kafearrekin-eta hartzeko bizkotxoak egiten nituen lehendabizi, eta harrera ona izan zuten, martxa handiagoarekin hasi nintzen lanean; opilak eta tarta hotzak egiteari ekin nion. Jendeak erantzun egin du, eta hori da garrantzitsua.

Nolako tartak egiten dituzu gaur egun?

Hitzordu berezietarako tartak egiten ditut, hala nola jaunartzeetarako, ezkontzetarako eta urtebetetzeetarako. Bestelako tartak ere egiten ditut, ordea, izan tiramisua, moussea, opilak edo tartaletak.

Zein tarta egiten duzu gustura?

Gustuko dut fondantarekin estaltzen diren tartak egitea. Gauza polit asko sor daitezke fondantarekin; haurrentzako zein helduentzako diseinu bereziak egin daitezke, adibidez. Aukera asko ematen dituzte, oso erraza da lan egiteko eta gauza berriak sortzeko.

Dekorazioa ere asko zaintzen duzu, beraz.

Dekorazioa oso garrantzitsua da tarta batean. Venezuelen tartak dira ospakizunetako protagonista nagusiak. Zerbait ospatzera joan eta ikusten den lehen gauza tarta izan ohi da. Horregatik, xehetasun txikiak ere asko zaindu behar izaten dira.

Zein da tarta on bat egiteko gakoa?

Maitasunez egin behar dira tartak. Halere, kontuan hartzeko faktore asko daude. Izan ere, Azkoitira Venezuelako tarten errezetak ekarri nituen, eta egin nituen lehenak ez zitzaizkidan ondo irten. Orduan ohartu nintzen irakite-puntuak zerikusia izan zezakeela horretan. Izan ere, Caracasen itsas mailatik 900 metrora bizi ginen, eta hemen itsas mailatik gertuago gaude. Osagai batzuk moldatu nituen, eta tartak ondo iriteten hasi zitzaizkidan. ■



Aro berrietara saltoak

ARGAZKIA ETA TESTUA: **AINHOA BERISTAIN**

Urtaro aldaketak,
gorputz aldaketak,
kolore aldaketak,
perspektiba aldaketak,
leku aldaketak...

Eta berriei so, eta ezezaguna onartzen. ■■■







JOSEBA EPELDE

Ez dakit

Sokrates zen antzinako Greziako gizaki jakintsuena, Delfosko orakuluaren arabera. Paradoxikoki, "ezer ez dakidala besterik ez dakit" izango da ziur asko filosofo horri buruz iritsi zaigun esaldirik sonatuena.

Zalantzarik gabe, asko zekien Sokratesek bere jakinduriaren mugei buruz, gaur egungo DBHko ikasle batek hark baino askoz gehiago jakiteko aukera baitu inguratzeko gaituen errealitateko ia edozein arlori buruz. Hori bai, egia eztaba daezintzat dituguneko aldeko argudioak eskatuz gero, uste baino gutxiagok jakingo lukete azaltzen zergatik den Lurra biribila edota nolatan den eboluzionismoa onartu beharreko teoria eta fixismoa atzerakoien matraka. Ustez

dakitenek esandakoan dugun konfiantzan oinarritzen baitira gehienetan gure ziurtasunak, geuk benetan dakigunean bainoago. Beste era batera esanda: gehien-gehienetan nori sinetsi da gure esku dagoen hautu bakarra.

Horregatik, harritu egin nau, alde batetik, azken bizpahiru urte hauetan gure bizimodua hankaz gora jarri duen pandemiaren aurrean zenbaitek izan duen jarrerak. Ematen zuen guztiok Medikuntzako edo Mikrobiologiako katedradun bihurtu ginela bat-batean, eta benetako katedradunak zirela zalantza egiten eta gauzak hain argi ikusten ez zituzten bakarrik. Egia esan, beste alde batetik ez zait hain bitxia ere egin, ezjakintasuna beti izan baita ausarta eta arriskutsua,

batez ere behar baino autoestimu eta botere handiagoarekin koktel berean nahasita astindu denean.

Sokratesen ildo beretik, Xabier Rubert de Ventos filosofo katalanak *Gauzak argi ez ikustearen garrantzia izenburua jarri zion Zergatik filosofia?* liburuaren lehen kapituluari, liburuko kapitulu interesgarriena, nire ustez. Pentsalari horrek dio garai guztietako gizakiok izan dugula inguruko errealitatea ulertzeko beharra, eta behar hori gure antsietatea eta egonezina baretzeko premiatik sortzen dela gehiago jakin-min hutsetik baino. Ez hori bakarrik: erantzunak izateko gose horrek jarrera neurotikoa eta ar paranoikoak ere sor omen ditzake, kasualitatea dagoen

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



YOLANDA LARRAÑAGA

Barrura begira

Laguntxo, inoiz aurkitu al zara egoera oker baten laurrean zergatik okertu den jakin gabe? Erantzunik ez duten milaka galdera batera eta bestera diren heinean, barrua hustu zaigun sentsazioa dugu lagun. Goizero, eguerdiro, arratsaldero eta, nola ez, ilunabarrean, zeure isiltasun gogorrean buruari eta bihotzari galdetuz zer eta zergatik aldatu den hain polita zen egoera edo mundu hura? Nola berreskuratu galdutako ilusioa eta irribarra?

Guзtiok izango dugu halako zerbait barnean, eta errazena izan ohi da galderarik ez egitea, erantzunaren beldur garelako, agian. Has gaitzke errudun bila, batera eta bestera begira, baina batzuetan ez da errudunik izaten. Bizitza bera izan daiteke gure pozen eta tristuren errudun edota lekuko. Begira dezagun geure barnetxo isilera noizbehinka, eta senti dezagun ezkutuko sentimenduen xuxurla. Beharbada, erantzunen bat aurki dezakegu.

Bestela, naturaren kontsolamendua gelditzen zaigu beti. Zuhaitzak ere triste jarri ohi dira orain, udazkenean, hostoak erortzen zaizkienean. Itsatsita daukaten zerbait galtzen dute, lurrera erortzen da hori eta han gizakiak zapaltzen du. Manten dezagun, bada, ilusioa, zuhaitzek bezala, gure hostoek bizitza izango dutelako datorren udaberrian. Bihotz hustua bete dezatela eroritako hostoek. ■

leku guztietan kausalitatea jartzen saiatzen bagara. Horrenbestez, Rubert de Ventosek defendatzen du gauzak argi ez ikustera eta zalantzan jartzera ausartzean dagoela filosofiaren oinarria, eta zientziarena ere bai, neurri handi batean.

Alabaina, txikitatik jartzen ditugu susmopean zalantzakor ageri diren irakasleak eta helduak. Diskurtso biribilak eta zirrikiturik gabeak (mitikoak, azken batean) dituzten politikariak eta mota guztietako "sermolariak" egiten zaizkigu erakargarrien, eta horiek izaten dituzte sarri jarraitzaile ugariak eta sutsuenak. Hori gutxi ez, eta karismarik ez dutela leporatu ohi zaie halako dohainik erakusteko gai ez direnei, nahiz eta agian karisma eta

biribiltasun hori dagoen gizateriaren historiako intolerantzia, fundamentalismo eta tragedia gehienen oinarrian.

Deserosoa da ziurtasunik gabe ibili behar izatea, eta gutxi du erakargarritik norberarentzat eta ingurukoentzat, baina beharbada horixe da jakin-minak eskatzen duen ordainsaria; nolabaiteko "mina" edo bete ezineko hutsunea, alegia. Izan ere, Adamen eta Ebaren antzera, jakinduriaren fruitu debekatutik jateak geure buruaren biluztasunaz ohartarazten gaitu, edo ezagutzaz janzteko dugun premia etengabe eta aseeginaz. Hori da, behinik behin, nire irudipena, baina litekeena da oker egotea ere. Ez dakit. ■



Esklerosiak, mila aurpegi

Gero eta ezagunagoa den gaitza da esklerosia, baina oraindik ere ikertzaileentzat enigma bat izaten jarraitzen du. Esklerosi anizkoitzak nahiz alboko esklerosi amiotrofikoak oso modu ezberdinean eragiten die gaixotasuna pairatzen duten pertsoneri, eta gaitz hori duten hiru herritarrekin hitz egin du Maxixatzenek.

Testua: **Anartz Izagirre**. Argazkiak: **Anartz Izagirre eta utzitakoak**.



Mila aurpegi dituen gaitza deitzen diote, eta ez da gutxiagorako. Gizartean gero eta ezagunagoa den gaixotasuna da esklerosia, eta azken urteetan ikerketa asko egin izan badira ere, ikertzaileentzat oraindik ere aski ezezaguna izaten jarraitzen duen gaitza da. Esklerosi anizkoitza eta alboko esklerosi amiotrofikoa (AEA), gaitz neurodegeneratiboak dira biak, eta nerbio-sistemari eragiten



diote. Hala eta guztiz, hainbat dira bien arteko desberdintasunak, besteak beste, bizi itxaropenari eta tratamenduari erreparatuta.

Ademgi elkarteak Gipuzkoan duen egoitzako kidea da Zuriñe Lopez. Esklerosi anizkoitza duten herritarrei laguntzen dihardu elkarteak 25 urtetik gora, eta xede nagusia "pazienteen bizi-kalitatea hobetzea" dela dio hark. Esklerosi anizkoitzak garuneko substantzia zuriei eta grisei zein bizkarrezur-muinari eragiten die: "Garunaren aginduak ematen dituen substantzia da mielina; kable baten modukoa da eta nerbio-sistema estaltzen du. Gaitz honen kasuan kable hori hautsi edo urratu egiten da, eta garunaren aginduak ez dira behar bezala iristen". Lopezek azaldu duenez, orduan orbainak sortzen dira garunean, eta orbain horri esklerosi-ehuna deitzen diote. "Anizkoitza da garunaren hainbat zatitan agertzen delako".

Aurpegiak nola, agertzeko moduak ere halakoak ditu esklerosi anizkoitzak. Izan ere, eri guztiei ez die modu berean erasaten, eta bilakaera ere oso bestelakoa izan ohi da batzuen eta besteen kasuan. Gaitzaren zantzuak, ordea, ezagunak izan ohi dira sarri: "Ikusmen bikoitza, gorputz-adarretan indar falta, hanketako zein eskuetako inurridura eta neke kronikoa, adibidez, pazienteen sintoma komunak izan ohi dira". Normalean gaitza agerraldi horien bitartez hautematen dute.

Sendabiderik ez duen gaitza da esklerosi anizkoitza, oraindik ere ez baitute gaitzaren sorburua topatu. Hala eta guztiz, farmakologian azken urteetan egin dituzten aurkikuntzetan egin du azpimarra Lopezek. "Tratamendu farmakologikoen funtzionatu egiten dute, eta aurrerapen handiak egin dituzte azken urteetan. Gaur egun, nahiko azkar detektatzen dute esklerosi anizkoitza, baina orain dela urte batzuk ez zen halakorik gertatzen. Gaitza azkar hauteman ahal izateak asko lagundu du, tratamenduak azkar ezar baitaitezke agerraldiak saihesteko edo leuntzeko".

Ademgi askotariko laguntza eskaintzen die elkartera jotzen duten pazienteei eta senideei, baina batez ere, esparru soziosanitarioan, psikologian, gizarte laneko izapide kontuetan eta errehabilitazio fisikoan laguntzen diete esklerosi anizkoitza dutenei. Itxaropentsua da Lopez, eta dio egun ikertzaileek eskuartean dituzte ikerkuntzek fruituak emango dituztela hemendik urte batzuetara.

Neurologoek bideratuta, elkartera esklerosi anizkoitza duten paziente askok jotzen dutela nabarmendu du hark, eta gaineratu du "ulergarria" dela gaitza duten hainbatek beldurragatik elkartera ez jotzea. Hala eta guztiz, "edonor ongi etorria" dela nabarmendu du: "Sentsibiltate handia dugu, eta badakigu zer dagoen".

AEA, "krudelagoa"

Alboko esklerosi amiotrofikoa (AEA) gaitz neurodegeneratiboa da esklerosi anizkoitzaren moduan, baina normalean oso bestelako bilakaera izan ohi dute gaitz hori jasaten duten gaixoek. Alboko esklerosi primarioaren kasuan motoneurona bati soilik eragiten dio gaitzak, eta eboluzioa askoz ere mantsoagoa izan ohi da; kontrara, alboko esklerosi amiotrofikoak bi motoneuronari



**ZURIÑE LOPEZ:
"GAITZA AZKAR
HAUTEMAN AHAL
IZATEAK ASKO
LAGUNDU DU"**

**NORA SAEZ:
"ESPERANTZARIK
GABEKO GAITZA DA,
SENDABIDERIK EZ
BAITU"**

erasaten die, eta pazienteek bizkorrago galdu ohi dute gaixotasunaren kontrola. "Krudela da". Halaxe definitu du gaixotasuna Nora Saez Adela alboko esklerosi amiotrofikoaren Gipuzkoako elkarteko presidente eta fisioterapeutak. "Apurka-apurka giharrak ahultzen joaten dira gaitz horren ondorioz, eta itota hiltzen dira, diafragma funtzionatzeari uzten dionean". Areago mintzatu da: "Esperantzarik gabeko gaixotasuna da, ez baitu sendabiderik eta tratamendurik. Beraz, AEA diagnostikatzen dietenean, pazienteek jakin badakite gaur bihar baino hobeto egongo direla".

Gaitz "oso garestia" dela nabarmendu du Saezek, eta batez beste paziente bakoitzak 45.000 euro gasta ditzakeela urtean: "Kosteen %30-40 inguru instituzio publikoek hartzen dituzte beren gain, gainontzekoa ez. Gure elkartearen helburua da gastu horien zati handi bat ordaintzen laguntzea". Era berean, beraien lana "pazienteari eta haren sendiari prozesu horretan laguntzea" dela dio Saezek: "Jendea oso estututa iristen da elkartera. Ospitalean gure elkarkez hitz egiten diete, eta gaixoen %75 inguruk jotzen dute gugana. Lehen hitzordua elkarteko gizarte langilearekin izaten dute, eta elkarrizketa gogorra izaten da. Asko gaitzaz Interneten irakurrita etortzen dira, eta hori da egin dezakezun gauzarik okerreana".

Tratamendurik ez izateak paziente asko lur jota uzten baditu ere, Saezek dio tratamendu aringarriek laguntza handia ematen dietela pazienteei: "Errehabilitazioak ez ditu sendatuko, baina gaitzaren inboluzio mantoagoa lor dezakete, eta batik bat, bizi kalitate hobea". Ildo horretatik, Saezek uste du "gaixotasunaren barruan bizi kalitate ona" izan dezaketela AEA duten pazienteek: "Disfagia duen eri bati segituan eskaintzen diote gastrostomia, estomagotik jateko aukera izan dezaten tutu baten bitartez". Arnasketa kontuekin ere gauza bera gertatzen dela dio: "Badaude trakeostomia egiten duten pazienteak ere, nahiz eta Gipuzkoan ez dugun halakorik. Paziente horien bizi kalitatea asko hobetzen da modu horretan, eta begien bitartez komunikatu daitezke, atrofiatzen ez diren gihar bakarrak begien mugimendukoak eta esfinterrekoak baitira".

"Esperantzatsu" dagoela dio Saezek, azken urteetan alboko esklerosi amiotrofikoaren inguruan "askoz gehiago" ari direlako ikertzen. AEA duten gaixoei elkartera jotzeko gonbidapena egin die: "Asko errespetatzen ditugu bakoitzaren beharrak, eta hona etorri nahi ez dutenentzat etxez etxeko zerbitzua ere badugu. Oso gogorra da zalantzak izatea eta horiek argitzeko alboan inor ez izatea".

"Dagoeneko ez dut gerora begirako planik egiten, egunerokoaz disfrutatzen dut"



2021eko Gabonetan zorigaiztoko albistea jaso zuen Julen Valverde (Azpeitia, 1974) Azkoitiko bizilagunak. Alboko esklerosi primarioa diagnostikatu zioten, eta, ordutik, bizitza goitik behera aldatu zaio. "Albistea jaso nuenetik urtebete ere ez da igaro, eta dagoeneko gurpil-aulkian nago", dio. Esklerosi anizkoitza dutenen kasuan ez bezala, alboko esklerosi primarioa edo amiotrofikoa dutenen kasuan bizi itxaropena zein kalitatea asko jaitsi ohi dira, eta inboluzioa ere, normalean, bizkorragoa izaten dute.

"Bizitza normala egiten ari nintzen, eta nire zaletasunetako bat korrika egitea zen. Halako batean oharatu nintzen hanketako bat altxatzea askoz ere gehiago kostatzen zitzaidala. Hasieran, fisioterapeutarengana joan nintzen, ondoren medikuarenera, eta azkenik, erresonantziak egin zizkidatenean, esklerosia nuela esan zidaten". Valverderen kasuan, momentuz, motoneurona bakarrari eragiten dio gaitzak, eta, beraz, alboko esklerosi primarioa du, ez amiotrofikoa. Diagnostikoa jaso zuenetik mugikortasuna galtzen joan da etengabe; gainontzean, ez du bestelako sintomarik izan.

Albistea jaso osteko hilabeteak ez ziren gozoak izan azpeitiarrarentzat: "Lehenengo kolpea oso gogorra izan zen, eta familiarengan pentsatu nuen. Bolada batez gertukoei soilik komentatu genien, eta neure dolua pasatu eta gaitza onartu nuenean, jendeari kontatzen hasi nintzen. Aulkia ere orduantxe ekarri nuen". Aurrez bazuen esklerosiaren berri; izan ere, lan egiten zuen enpresan langile batek alboko esklerosi amiotrofikoa izan zuen: "Gaixotasunaren berri izan nuenean harekin akordatu nintzen".

Alboko esklerosi primarioaren eta amiotrofikoaren kasuan ez dago tratamendurik, eta horrenbestez, sendaezina da momentuz. Hala eta guztiz, tratamendu aringarriekin gaitzaren bilakaera moteldu daiteke, eta horiek jasotzen ditu Valverdek: "Errehabilitazioaren bitartez sintomak frenatu ditzakezu; okertzen joango zara, baina motelako. Gorputza zenbat eta geldoago izan okerrago da, eta errazago aurreratzen da gaitza". Gaitz hori duten pazienteak itota hil ohi dira, diafragmak funtzionatzeari uzten dienean, eta horixe da azpeitiarraren beldurrik handiena: "Autonomia galtzeak ere izorratu egiten nau. Laguntza handia behar dut, baina nik gurpil-aulkia dudanez, momentuz badut autonomia apur bat".

Ezinbestean bizitza zeharo aldatu zaio Valverderi, eta Adela Alboko esklerosi amiotrofikoaren Gipuzkoako elkartearen kide izateak "asko" lagundu dio: "Osakidetzak hartu ezin dituen gastu asko elkarteak hartzen ditu bere gain. Askok laguntzen didate; izan ere, zalantzak ditugunean denon artean topatzen dugu informazioa, eta denon artean laguntzen diogu elkarri". Dolua gainditzeko, medikuari "hasieratik" psikologoa eskatu ziola dio: "Amaiera heltzen denean nahiko nuke ahalik eta gutxien sufritzea, bai niregatik, bai ingurukoengatik. Izan ere, gaitz honek ez dit niri bakarrik eragiten, inguru osoari baizik".

Bilakera progesiboa duen gaitza izaki, esperantzarik ez duela dio Valverdek, baina ziur dago egunen batean lortuko dutela zerbait: "Sendatzea lortuko dutenik ez dut uste, halako gaixotasunak kronifikatu egin ohi dituztelako; hori badakit, diabetikoa ere banaizelako. Baina zerbait topatuko dute, ez dut dudarik". Azkoitiko bizilagunak argi du, kontuak kontu, egunean egunekoaz disfrutatzen jarraituko duela: "Dagoeneko ez dut gerora begirako planik egiten, egunerokoaz disfrutatzen dut, eta gero gerokoak".



"Eragozpen gehiago eragin dizkit tratamenduak esklerosiak berak baino"

Ia 30 urte daramatza Myriam San Vicente (Urretxu, Gipuzkoa, 1960) Azkoitiko bizilagunak esklerosi anizkoitzarekin bizitzen. Azalean sentsibilitate arraroa, ikusmen arazoak eta kalanbreak sentitzen hasi zen, besteak beste, eta agerraldiak gelditzen ez zirela ikusita, medikuarenera jo zuen: "Sendagileak ez zion kasu handirik egiten sintomei, eta esaten zidan urduri nengoelako gertatzen zitzaidala hori. Baina larruazalean ez nituela hainbat gauza sentitzen konturatu zenean, berehala neurologo batengana jotzeko esan zidan". Orduan igarri zizkioten San Vicenteri garunean plakak zituela, eta esklerosi anizkoitza diagnostikatu zioten.

"Lehenengo hiru urteetan zazpi agerraldi izan nituen, eta interferoia hartzen hasi nintzen", azaldu du. Tratamenduak "gorputza sisko eginda" uzten ziola adierazi du, eta hamar urte inguru sendagaia egunero hartzen egon ostean, gutxiagotan hartzera pasatu zen, eta gero, utzi egin zion hartzeari: "Tratamendua oso gogorra da, baina momentu hartan gaixotasuna baino nahiago nuen. Injekzioa hartzen nuen bakoitzean, egunero sei ibuprofeno hartu behar izaten nituen mina baretzeko. Tratamenduak esklerosiak berak baino eragozpen gehiago sortu dizkit". Azken bospasei urteetan ez du tratamendurik hartu, eta ez du agerraldirik izan; kontara, tratamendua lagatzeak "onura ikaragarriak" ekarri dizkio.

Azken 30 urte hauetan, asko aldatu da San Vicentek gaitzarekiko duen ikuspegia; hasieran, ordea, gaizki pasatu zuela dio: "Banekien gaitza zer zen, nire izeko batek ere izan zuelako. Nire semeek 7 eta 3 urte zituzten diagnostikoa jaso nuenean, eta nire pentsamendu bakarra zera zen: 'Hamar urte mesedez. Umeak hazi arte'. Buru gainean ezpata bat duzula bizi zara". Egun, 62 urte ditu eta neke kronikoa soilik sentitzen du; gainontzean, ez du albo-kalterik, eta gaitza ez da progresiboa. Ez zuen espero, ordea, gaitza detektatu eta 30 urte geroago egun dagoen moduan egongo zenik. Hala eta guztiz, beldurrak asko eragiten duela aitortu du: "Ez jakitea gaixotasunak nola eboluzionatuko duen... Ikaragarria da, zugar eta ingurukoengan pentsatzen jartzen zara".

San Vicente kontziente da garuneko gaixotasunak "oso ezezagunak" direla ikertzailentzat, baina uste du egunen batean topatuko dutela esklerosi anizkoitza gelditzeko botika egokia: "Zortea daukagu jende askok duen gaitza delako esklerosi anizkoitza, eta beraz, diru asko inbertitzen delako ikerketetan. Zentzu horretan asko aurreratu da". Azkoitiko bizilagunak argi du bera "pribilejiatu bat" dela gaitzaren bilakaera okerrik igarri ez duelako, eta bera ondo ikusita, medikuak "jendea animatzera" bidali izan duela ere azaldu du: "Ni ondo ikusita, etorri izan zait jendea galderak egitera ere".

Era berean, esklerosiarekin gauzak "asko erlatibizatzen" ikasi duela dio urretxuarrak: "Bazoazela eta bizimodua asko aldatuko zaizula pentsatzen duzuenean, beste gauza askotan jartzen duzu begirada. Jendeak maitasuna adierazten dizu, eta horrek sekulako indarra ematen du". Gaur egun "beldurrik ez" duela dio: "Gauzak askoz garbiago ikusten ditut orain, zerk merezi duen eta zerk ez. Bizitza hitz batean laburtuko nuke: zortea".

"Gaitza detektatutakoan uste nuen 30 urte egiterako gurpil-aulkian egongo nintzela"

Nerabea zenean, 18 urterekin, detektatu zioten esklerosi anizkoitza G.S.-ri —elkarrizketatuak ez du erreportajearen bere izen-abizenik agertzea nahi—. Goi-mailako ziklo bat egiten ari zen garai hartan, eta eskuak inurritzen zitzaizkiola eta ezin idatzita gelditzen zela azaldu du. Gaizki ikusten ere hasi zen, hankek ez zioten behar bezala erantzuten, eta medikuarenera jo zuen sintoma horiek nabaritzen hasi zenean: "Sendagileak esan zidan urduria nintzela eta horregatik gertatzen zitzaidala hori. Oso motel izan bazen ere, azkenean proba neurologikoak egin zizkidaten, eta 19 urterekin diagnostikatu zidaten gaitza".

G.S.-k aurrez bazuen gaitzaren berri, ikasten ari zen zikloko ikasgai batean eskleriaren berri izan zuelako. Halere, ez zituen gaixotasunaren xehetasunak ezagutzen: "Ordura arte eskleriaren inguruan entzuten nuen guztia beltza zen. Oso gaztea nintzen orduan, eta hori entzun nuenean, mundua gainera erori zitzaidan. Esklerosia duzula ohartzea mundua jan behar zenuela uste duzun garaian... Oso gogorra izan zen; halere, babestuta sentitu nintzen".

"Hil egin behar al dut?". Horixe izan zen G.S.-k medikuari egin zion lehen galdera, ez baitzekien zein esklerosi mota zeukan: "Gaitza detektatutakoan uste nuen 30 urte egiterako gurpil-aulkian egongo nintzela". 18 urte beranduago –36 ditu egun–, ordea, oso bestelakoa da haren egoera: "Hasieran, denera, bost agerraldi edo izango nituen, baina 22 urte nituenetik hona ez dut agerraldirik izan". Gaixotasuna detektatu ziotenean tratamendua ezarri zioten G.S.-ri, eta hari esker, izan dituen agerraldietatik errekueratzeaz gain, agerraldi horiek gelditu ere egin zaizkio, nahiz eta neke kronikoa gelditu zaion. Esklerosi anizkoitzak eragiten zion beldurrik handiena zaintza zen: "Gaitzak okerrera eginez gero nork zainduko ninduen, horixe zen gehien arduratzen ninduen; karga bat izatea jendearentzat".

Tratamendua "asko" aldatu da, G.S.-ren esanetan, hartzen hasi zenetik hona. Hasieran ziztada bidez jasotzen zuen sendagaia, eta "fisikoki zein psikologikoki" asko eragiten ziola dio. Egun, ordea, pilulak hartzen ditu, eta modu horretan, medikazioa hartzea erosoago dela azaldu du. Horrez gain, azken urteetan gaitza ikusteko modua ere asko aldatu dela aitortu du: "Gaitza gelditzeko zerbait asmatuko duten esperantza daukat; sendatzea, ordea, zailagoa ikusten dut. Ikerketak makal doaz, baina gaitzarekiko sentsibilitatea orain handiagoa da".

G.S.-k "bizi kalitate ona" duela adierazi du: "Momentuan ez dut egin ezin dudan ezer". Halere, errealitate desberdinak daudela esan du: "Ni ondo nago, baina nire ikuspuntutik ari naiz hitz egiten. Oso kontziente naiz horretaz". Hala eta guztiz, esklerosi anizkoitza duten pazienteentzat "hobetzeko gauza asko" daudela azpimarratu du: "Alde batetik, muga arkitektonikoak ditugu. Honezkeron irisgarritasunak hobia izan behar zukeen guztiontzat. Eta, bestetik, neke kronikoa dugunok lanean baja hartzeko erraztasun gehiago ezarri beharko lituzkete. Malgutasuna behar dugu halakoetan".

Baikorra da G.S., batez ere, eskleriaren bilakaera ez delako uste bezain negatiboa izan bere kasuan. Dena den, kontziente da beste modu bateko eragina ere izan zezakeela: "Ez dakit nolakoa izango zen nire jarrera agerraldiak bata bestearen atzetik jasan beharko banitu". ■■■

**"BOST AGERRALDI EDO
IZANGO NITUEN, BAINA
22 URTE NITUENETIK
HONA EZ DUT
AGERRALDIRIK IZAN"**

**"NI ONDO DAGO, BAINA
NIRE IKUSPUNTUTIK
ARI NAIZ HIZKETAN;
OSO KONTZIENTE NAIZ
HORRETAZ"**

2+2=5



LANDER ALBIZURI

XX. mendean egindako hainbat esperimentu psikologiko giza jokabidea ulertzeko ezinbesteko giltzarri izan dira. Horietatik interesgarrienetakoa Aschen saiakuntza izan da, besteak beste.

Aschek 7-9 pertsonaz osatutako gelak antolatu zituen. Hainbat galdera egiten zituen zuzendari bat zegoen bertan, partaideengandik erantzuna jasotzeko asmoz. Zehazki, arbelean ezarritako lerroen artean tamaina berekoak zirenak aurkitzean zetzan buruketa. Ezkerreko aldean marra bat erakusten zen; bestaldean, aldiz, luzera desberdineko hiru. Partaideek eskuin aldeko hiruetatik ezkerreko arraiaren neurri berekoa zena aukeratu behar zuten.

Esperimentu hori okulistik eginiko froga optiko bat izango litzateke, ordea, itzalpeko ehizaren antzerako manipulazioa izango ez balitz: izan ere, bakarra izan ezik, gelako beste partaide guztiak gidoia zuten konplizeak ziren.

Era horretara, zuzendariak banan bana egiten zituen galderak. Lehenik, aktore guztiek gela osoan aditzeko moduan erantzun oker bera ematen zuten, egiazko partaidearen deserosotasun deitoragarriari bide emanez. Hainbat aldiz errepikatzen zuten galdera, galdetzeko elementuak ziren lerroak aldi bakoitzean aldatuz, eta emandako erantzun okerraren eta zuzenaren artean lau zentimetroko aldea egongo zen ene batzuetan. Lehenengo bizpahiru aldiak erantzun zuzenarekin saihestea lortu zuen partaide originalak, baina beste zortzi pertsonen erantzun ezberdinarekin pitinka-pitinka uzkuriturik, galdera kopuru jakin batera iristean, amua bete-betean irentsiko zuen hark, taldearen presioak menperaturik. "Besteek hala badiote, hala izango da" logikaz, begi bistan zuen erantzun zuzena baztertuz.

Ongi aztertuz gero, aurreikusteko modukoa izan zen ondorio hori. Aldiz, argibide pisuduna da froga material moduan. Non dago gezur bat egiaztat hartzeko arriskua, eta alderantziz? Fenomeno hori urruneko zerbait bezala hartu beharrean, gure inguruan dabilen kutsadura ikusezin moduan hartzea zentzuzkoagoa da, beharbada, CO₂a bezala gure parte izan daitekeena. Baina orain, gizakiaren iritzi kritiko propioa zeinen erraz zanpatua, eklipsatua, izan daitekeen ondorioztatzea norberari dagokio. Akaso, irakasleek, aho batez hala erabakita, 2+2=5 dela irakatsiko baligute, ez al zen hala izango? ■■■

IRAKASLEEK, AHO BATEZ ERABAKITA, 2+2=5 DELA IRAKATSIKO BALIGUTE, EZ AL ZEN HALA IZANGO?



"Komunikazioarekin zerikusia duen guztia gustatzen zait"

ARANTXA ALDALUR KOMUNIKATZAILEA

Ume zela erein zuen poesiarako zaletasuna, eta pasio horrek gaztetan eman zituen aurreneko fruituak. Ondoren, 22 urtez, Debako eta Zarauzko udal euskaltegietan aritu zen irakasle lanetan, eta egun, Zarauzko Udalean egiten du lan, Hezkuntza Saileko arduradun gisa. Azkoitiarrak han du bizilekua duela 22 urtetatik. Testua: **Ane Olaizola**. Argazkiak: **Ane Olaizola eta Urola Kostako Hitza**.

Ilusio berezia" egin dio Maxixatzenen elkarrizketarako gonbidapenak, eta Zarauzti Azkoitira joan-etorria egiteko aprobetxatuz, hitz jario ederrez eta jaioterriko hizkera hitzean eta hortzean duela erantzun ditu galderak. Zaila da Arantxa Aldalur (Azkoitia, 1963) hitz bitan aurkeztea, hainbat "egonezin" dituen emakumea baita.

Poesia idazlea, euskara irakaslea, telebista zein kaleko saioen aurkezlea... Nor da Arantxa Aldalur?

Komunikatzailetzat dut nire burua, batez ere. Klaseak ematea asko gustatu izan zait, haurra nintzenetik dut gustuko laguntzea. Andereño izan nahi nuelako ikasi nuen Magisteritza, eta Turismoa ikasi nuen gero. Hizkuntz Plangintza diplomatura ere badut; gogoko ditut hizkuntzak, hitz egitea eta komunikatzea, batez ere. Aurkezpen lanak ere egiten ditut herrian, eta Erlo Telebistan ere aritu naiz gauza batzuk egiten; saltsa hori asko gustatzen zait. ETB1eko *Airean* saioan, berriz, hamabi bat emankizun egin nituen tertuliakide gisa. Zeregin asko etorri egin zaizkit: ekitaldiak aurkeztea, saioetan parte hartzea... Eta proposamen guztiei baietz esaten diet. Izan ere, mundu hori ikaragarri gustatzen zait. Orain zera esaten dut: berriz jaioko banintz, kazetaritzaren

alorretik egingo nuke ibilbidea. Aipatu ditudan gauza horiek guztiak zaletasunak dira, ogibidez Zarauzko Udaleko Hezkuntza departamentuko arduraduna bainaiz. Hala ere, lanean egin izan ditut komunikazioari lotutako gauzak: duela hainbat urte, esaterako, tertuliak antolatu nituen, frantsesez eta ingelesez. Han ere oratoria lantzen nuen [barreak]. Komunikazioarekin zerikusia duen guztia gustatzen zait. Berritsu jaio gara, eta... **1980ko hamarkadan hasi zenuen ibilbidea literaturan, eta 20 urterekin argitaratu zenuen aurreneko poesia liburua: *Itsas oiartzunetan oro malenkonía*. Hiru urteren ondoren, berriz, *Hainbat gau izarrik gabe*. Biek ala biek sariak eskuratu zituzten. Orduetik, beste hiru poesia liburu kaleratu dituzu: *Hasperen gisa*; *Amodio eta desamodio poemak eta Ilunetik... argira*. Aurreneko saria Gipuzkoako Foru Aldundiak eman zidan, eta sari hura Xabier Leteren eskutik jaso izanak sortu zidan ilusio gehien. Bigarren saria eta liburu argitalpena, berriz, Euskaltzaindiarenak izan zen. Zera esan zidan Alfonso Irigoienek orduan: "Hain gazte, eta dagoeneko saria irabazita". Animatu egin ninduen hark idaztera. Hirugarren saria Lasarte-Orian (Gipuzkoa) eman zidaten. Ondoren, beste lehiaketa batera aurkeztu nintzen, baina ez nuen**



saririk lortu, eta lanak neure kontura kaleratzen hasi nintzen. Bi autoedizio txiki egin nituen, aurreneko hiru liburuak pixka bat txukunduta. Ipuinak ere idatzi ditut, baina horiek etxean, txokoan, ditut gordeta.

Idaztea ere zaletasunen artean sartzen dut. Ez naiz batere lotsatia, baina poesiaren kontuak pixka bat lotsatu egin izan nau beti. Kostatu egiten zait idazlea naizela esatea, baina bien bitartean, Euskal Idazleen webgunean agertzen naiz. Emakume askori gertatzen zaigu hori; gizonetako batek zerbait irabazten du eta hark idazletzat du bere burua, baina nik hiru sari irabazi ditut, baita hainbat artikulua idatzi ere, eta oraindik ez naiz idazle kontsideratzen.

Zer-nolako bilakaera izan dute zure lanek?

Hasieran, maitasun poemak sortzen nituen. Idatzi nuen azken liburua *Ilunetik...argira* izan zen. Garai hartan, une pertsonal gogorra igaro nuen, eta bizitako hori atera nuen argitara; nola igaro nintzen gaizki egotetik ondo egotera.

2013an itxi egin al zenuen literaturaren bidea?

Hasiera batean, bai. Pentsatu nuen hura ez zela nire bidea eta beste bat hasi behar nuela. Orain konturatzen naiz poliedroak gara eta gauza bat hor lagatzeak ez duela esan nahi betirako utzi

behar duzunik. Egin daiteke pixka bat denetik; neurria hartzea da kontua, eta horretan nabil. Orain, sortzeko momentua iritsi zait berriz.

Sortzen jarraitzen duzu, beraz.

Orain, sortze puntuan nago berriz ere. Batzuetan, ematen du ez garela ezer egiten ari, baina ingurukoa xurgatzen ari gara. Une hori ez da idazteko momentua, baina jasotzen ari zara, asko. Bulkada asko izaten ditut; egon naiteke tarte bat ezer idatzi gabe, eta kontatzeko gauza askorekin gero. Kontatzeko prozesu horretan, aurrenengo, barrurako lan bat egoten da, eta gero ateratzen da.

Nondik datorkizu idazteko zaletasuna?

Haurra nintzenetik dut gustuko. Eskolan, literatura asko gustatzen zitzaidan. Gogoratzen naiz literaturako liburuaren bukaeran poesia zatiak egoten zirela eta horiek irakurritz zaletu nintzela. Irakurtzea betidanik asko gustatu izan zait, baina, egia esan, ez dakit idazten noiz hasi nintzen. Txikitako lagunek esaten didate azterketaren bat gainditzen ez bazuten, errimak eginda lau hitz bidaltzen nizkiela animo moduan... Ez naiz horrekin akordatzen, baina bai hitzekin jolastea asko gustatzen zitzaidala. Euskara gehiago ikasten eta hizkuntza maitatzen



2014ko Kilometroetan, Aldalur Erlo telebistarako aurkezpen lanak egiten, Andu Lertxundirekin.

hasi nintzenez, hiztegira jo eta sinonimo asko bilatzen nituen, eta ondoren, sinonimo horiekin hitz jokoak egin eta sentimenduekin lotzen nituen... Horretan beti jolastu izan dut, baita orain ere. Poesia hizkuntz ariketa bat da niretzat. **Literaturaren arloan "belaunaldi handi batekoa" zarela esana duzu. Zentzu horretan, gaztea zinela, Azkoitian zer-nolako ingurua izan zenuen?**

Institutuan maisu bat eduki genuen, eta hari bost-sei idazle atera zitzaizkion: Juan Luis Zabala, Felipe Juaristi, Pako Aristi... Horietatik neska bakarra ni nintzen. Dena den, nik inoiz ez dut nire burua horien maila berean jarri. Haiek ia-ia idazle profesionalak dira; ni, ez.

Giro berean mugitzen al zineten?

Ez. Adinekoak ginen, baina ez ziren nire ingurukoak. Esan daiteke batik bat maisuaren eragina jaso nuela. Ostiraletan izaten genuen harekin klasea, eta irakasleak euskarazko liburu pila bat eramaten zituen guk irakur genitza. Liburu guztiak mahai gainean uzten zituen, eta berak paso egiten zuen. Ikasleok hasieran tertulhari ekiten genion, baina maisuak ostiralero gauza bera egiten zuenez, azkenean liburu bati heltzen genion, eta plazerez leitzen genuen; ez genuen laburpenik-eta egin behar izaten. Irakurri egiten genuen, besterik ez. Orain, ikasleei beti eskatzen zaie liburuaren laburpen bat-edo egitea, eta hori ez zait oso egokia iruditzen. Plazerez irakurri behar da, eta bakoitzari utzi behar zaio gustukoa topatzen. Gero, irakurriko ditu irakurri behar dituenak, baina lehenengo utzi diezaiozun bere bidea egiten. Neuk ere lehen obligazioz

hartzen nuen irakurtzea, baina aspaldian ez. Izan ere, asko dago irakurtzeko, ez naiz denera iritsiko eta ez gaude denbora alperrik galtzeko.

Zer motatako literatura duzu gustuko?

Hasieran, poliziakoa irakurtzen nuen, istorioaren amaierara arte ez duzulako jakiten nor den hiltzailea. Genero horrek laguntzen zidan ez aspertzen eta liburuaren amaieraraino iristen. Gero, klasikoekin eta maitasun istorioekin hasi nintzen. Egun, denetik irakurtzen dut, baina gehien gustatzen zaizkidanak poesia eta saiakera generoetakoak dira.

Diozunez, baduzu beste zaletasun bat, hain ezaguna ez dena, ezta?

Igarle ukitua dudala esaten didate, asko ikusten dudala... Amamarengandik jaso dut sen hori.

Hura belarrekin ibiltzen zen, eta ni kartekin.

Oshoren kartak botatzea gustatzen zait,

hazkuntza pertsonala oinarri dutenak, horiekin inor ez dudala mintzen uste baitut. Horrez gain, esku sendatzaileak ditudala esaten didate.

Mendizaleekin-eta joaten naizenez, inork mina hartuz gero, "magia" egiten dudala esaten didate.

Ematen du funtzionatzen duela, baina reiki-edo egin beharko dut, energia hori gero neuk ez eramateko. Arlo hori ere komunikazioa da; laguntzea.

Hitzekin eta hizkuntzarekin osatu duzu ibilbidea. Izan ere, 1988an Debako Udal Euskaltegian hasi zinen irakasle, eta zuzendari ere izan zinen. Nola oroitzen duzu garai hura?

Debako Udal Euskaltegian lau urte egin nituen, eta handik Zarautzera pasatu nintzen. Oso oroitzapen politak ditut. Karrera amaitu berritan topatu nuen lana. Poesia saria ere orduan eman zidaten, eta mutil laguna ere topatu nuen; zortedun sentitzen nintzen. Oso gustura aritu nintzen. Hutsetik hasi zen talde batekin ekin nion hanga ibilbideari, eta taldeak nirekin amaitu zuen prozesu osoa. EGako taldea ere nik hartu nuen, eta asko ikasi nuen irakasten. Funtzio bikoitza izan zuen etapa hark: batetik, irakasteko nuen bokazioa praktikan jartzeko balio izan zidan; eta bestetik, hizkuntzarekiko mimoa landu nuen.

Euskaltegiak zer erronka zituen?

Euskarari dagokionez, Debara joan nintzenezan ohartu nintzen Azkoitian euskaraz asko hitz egiten zela; Itziarkoek egiten zuten, baina oro har, Deban, herri txikia izanagatik, nahiko erdal giroa zegoen. Beraz, erronka handia zen. Ostiraletan zerbait hartzera ateratzen ginen, baina ikasleei eskolatik kanpo kostatu egiten zitzairen euskaraz



Aldalur, erdian, ingeles eta frantses kafe tertulietan.

"HITZEKIN BETI JOLASTU IZAN DUT, BAITA ORAIN ERE. POESIA HIZKUNTZARIKETA BAT DA NIRETZAT"

"BULKADAK DITUT. EGON NAITEKE TARTE BAT EZER IDATZI GABE, ETA KONTATZEKO GAUZA ASKO IZAN GERO"

"ESATEN DIDATE SINPATIKOA ETA GRAZIOSOA NAIZELA. HORI AZKOITIKO UKITUA DELA USTE DUT"

aritzea. Ordea, zerbait egin genuen, ustez behintzat. Handik Zarauzko Udal Euskaltegira joan nintzen, eta jauzi handia antzeman nuen; Zarautzen asko egiten zen euskaraz.

Ezagutza maila igo den arren, erabileran pauso bat atzera eman denaren oihartzuna gero eta ozenagoa da. Sumatzen al duzu hori kalean?

Bai, eta atentzioa ematen dit. Zarautzera joan nintzenean, guztia euskaraz egiten zen, eta urte batzuk badira, hamar baino gehiago, ume batzuk gazteleraz entzun eta etxeko balkoira atera nintzela, harrিতuta. Orain, hori asko, nahi baino gehiago, sumatzen da. Euskara departamentutik-eta guztiok ari gara lanean, AEK zein udal euskaltegiak programa asko ari dira garatzen

atzerritik datozenentzat, eskoletan ere umeek berehala ikasten dute, baina ez dakit gurasoen joerarengatik-edo al den, baina atentzioa ematen du gaztelerarako dagoen joerak.

Zarauzko Udaleko hezkuntza arloko arduraduna zara. Zein da zure egitekoa han? Eskolekin egiten dugu lan. Batetik, eskola

publikoen mantenua ematea egokitzen zaigu guri, eta horiek dira Orokieta herri eskola eta haurtzaindegia. Bestetik, eskola guztientzat hainbat dirulaguntza bideratzen ditugu, eta programak zein lehiaketak antolatzen ditugu. Horien artean, Ikaslaguna programa dugu, zeinetan boluntarioen bidez behar bereziak dituzten ikasleak laguntzen ditugun. Orain buruko osasuna nahi dugu landu, pandemiak gazteak ondo jo dituelako eta prestigio aldetik kaltetuenak izan direlako. Gazteek egin dituzten gauza positiboak ikusgai jarri nahi ditugu. Izan ere, esaten dute gazteen artean asko nabaritu direla depresio eta antsietate kasuak. Ez da asko aipatzen, baina suizidio kasu pila bat daude, eta gaiari heldu egin behar zaio.

Urte asko dira Zarautzen bizi zarela. Zer harreman duzu Azkoitiarekin?

Asko kostatu zitzaidan Azkoititik joatea. Hasieran, beti esaten nuen azkoitiarra nintzela, eta gero hasi nintzen esaten zarautzitarra zein azkoitiarra nintzela. Ezin dut bat kendu. Gainera, iruditzen zait nire xarmarik handiena Azkoititik datorkidala. Esaten didate sinpatikoa eta graziosoa naizela, eta hori Azkoitiko ukitua dela uste dut. Horrez gain, nire haurtzaroa Azkoitian dago, eta txikitan formatzen gara. Egia da, era berean, kortsea ere hor daukazula; jendea etiketatzekoak gara, horretan ere ikasten ari garen arren. Baina, oro har, modu batera ikusten zaituzte, eta hein batean, ikusten zaituzten hori bihurtzen zara. Beraz, herritik ateratzeak asko lagundu dit soltatzen. Batetik, Zarautzek eman didan askatasuna dut, baina bestetik, gaur arte titudan balioak eta edukazioa Azkoitian jasotakoak dira. ■■■

PUBLIZITATEA



**JARRI HEMEN ZURE
IRAGARKIA**

ZERBER BURDINDEGIA

BEHAR DUZUNERAKO ALOR-GUZTIAKOKO GAIAK AURKITUKO DITUZU
GURE BURDINGIAN: INDUSTRIA, ELEKTRIZITATEA, MARGOLARITZA, ETXEA,
ITURGINTZA, BIKOLAUSA ETA ABARREKO TRESNERIA; HALA NOLA,
TORLOJUAK, ERRODAMENDUAK, SARRAILAK, GILTZAK, ETA ABAR...

**ZERBERREN
"ZER BER ETA HURAXE"**

NAGLUBIA, 30 • 20720 AZKOITIA • 943 35 31 35
www.ferretiazzerber.com

bertako -REKIN BAI!

igogailuak | ascensores

**DROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko**

- Baitz mantentze-ten profesionalari
- Baitz berotako 24/7/365 zerbitzuari

**GIPUZKOA
943 903 450**

www.bertako.eus



NON DAGO ZAKELMARI?



Abuztuko Maxixatzen aldizkarian **Zakelmari** non ezkatututa zegoen asmatu behar zen: 7. orrialdean zegoen ezkatututa.

Maxixatzeneko bazkide guztien artean zozketa egin ondoren, **Ainara Altuna** bazkideari egokitu zaio Ogi Berri okindegiaren **zortzi lagunentzako tarta**.

Datorren hilean, Herrixen elkartearen 50 euroko txeketa zozkatuko du Maxixatzenek Zakelmari aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna urriaren 20a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira edo erredakzioa@maxixatzen.eus helbide elektronikora.



ANBULATORIOAREN ONDOAN

KAFETEGI HANDIA DUGU: urtebetetze-ospakizunak, gosariak, meriendak, errazioak, pintxo potea asteazkenetan, txokolatea txurroekin eta terraza zabala.

ESKAINITZA ZABALA: ogiak, opilak, gozoak, etab.

JAUSORO AUZUNEA, 5 behea • 20720 AZKOITIA • tel. 943-08 34 54
FACEBOOKa OGI BERRI AZKOITIA GOXO GOXO



Zerbitzuak hobetzeko eta gizarte-politika hobeak izateko **ticketa. BAI.**



TicketBAI, Gipuzkoa osoa batzen duen tresna aurreratu eta solidarioa, etorkizuneko erronkel aurrea hartzeko.

gipuzkoa.eua/ticketbai



TicketBAI
GIPUZKOAN EGIN DA

Eguzkitan
Pasa Aldekoa
Eguzkitan Food
Bilaketa



ETORKIZUNA
GRAN
Ta 7.000

eskatu
desberdin

**BETIKO JATETXEAK
INOIZ EZ BEZELA**

DESKARGATU ETA PROBATU



%15

**DESKONTU KODEA
MAXIXATZEN**

**AZKOITIAN ZURE ATERAINO
EUSKARAZ - ESKAINTZA ONENAK**

INFORMAZIO GEHIAGO ESKATU.EUS WEBGUNEAN

*SARTU "MAXIXATZEN" KODEA ORDAINDU AURRETIK %15-TEKO
DESKONTUA IZATEKO URRIKO LEHENINGO ESKAREAN



"Gitarra irakasletzat eta okintzat daukat neure burua"

TIBALT ALBERDI GITARRA IRAKASLEA ETA OKINA

Tibalt Alberdik 21 urterekin hartu zuen gitarra bat lehenbizikoz esku artean, eta ordutik ez du askatu ere egin. Azken urteetan, *on line* plataformetako eduki sortzailea ere bada, eta gitarraz zein bideo-jokoez zuzenekoak egiten ditu Twitch eta YouTube plataforma digitaletan. Egun, Logroñon bizi da.

Testua: **Miren Elorza**. Argazkiak: **utzitakoak**. Marrazkia: **Gorka Larrañaga**.

Tibalt Alberdik (Azkoitia, 1992) Historia ikasketak egin zituen Gasteizen, irakasle izateko asmoarekin, baina berehala konturatu zen hori ez zela berea. "Ez nuen nire burua 14 edo 15 urteko gazteei historia irakasten ikusten; samindu egingo nintzatekeela jabetu nintzen" dio azkoitiarrak. Lagun batek zor zizkion sei euroak diruz ordaindu beharrean, gitarra klase bat emateko proposatu zion behin Alberdik lagunari, eta hura izan zen gitarra ikasten hasi zen aldia; orduz geroztik, ez da inoiz gitarrarengandik aldentu. 21 urte zituen orduan, eta gitarra espainiarrarekin jo zituen lehenengo akordeak. "Gitarra espainiarra beste modu batera afinatu eta Berri Txarrak edo Su Ta Gar taldeen abestiak jotzen nituen". Musikarekiko zaletasuna nerabezaroan hasi zitzaiola adierazi du Alberdik. Su Ta Gar zuen talde kuttunetako bat, eta talde haren abestiak entzunez konturatu zen gitarra zela emozio gehien sorrarazten zizkion eta gustukoek zuen instrumentua. Emozio handiz oroitzen du Eibarko taldeak Ibarako Gaztetxean eman zuen kontzertuetako bat: "Nire kontzerturik kuttunena izan zen. Agertoki oso txikia zen, eta lehen ilaran nengoen. [Aitor] Gorosabel tarte oso txikira izan nuen. Ikaragarri gozatu nuen kontzertu hartan".

Azken urteetan, plataforma digitaletara egin du jauzia Alberdik. YouTube eta Twitch plataformetako kanalak ditu, eta nahiz eta azken boladan YouTube zertxobait albo batera utzita duela dioen, bietan sortu ditu edukiak. Lehenengo pausoak Twitchen eman zituela gogoratzen du Alberdik; berak kontsumitzen zituen bideo jokoen inguruko zuzenekoak egiten hasi zen. Hasiera hartan, edukiak gaztelaniaz sortzen zituen, eta adierazi duenez, lagunen artean "barre batzuk" egitea zen helburua. Gero, unibertsitateko bazkari batetik atera zitzaion edukiak euskaraz sortzeko ideia. Hark adierazi duenez, gitarra ikasten hasiberria zen lagun batek kontatu zion euskaraz eta euskal musikari buruz ikasi ahal izateko edukiak bilatzea oso zaila zela. Horrela bururatu zitzaion musikariari euskarazko gitarrarako tutorialak sortzen hastea: "Neuk nekizkien abestiak irakasteko aukera nuela ikusi nuen, eta halaxe hasi nintzen. Egin nituen lehendabiziko bi edo hiru bideoek lotsa ematen didate orain, oso gaizki eginda baitaude, baina pixkanaka ikasiz joan nintzen, eta kalitatez hobetzen edukiak".

Metal zale amorratua da Alberdi: Su Ta Gar, Berri Txarrak, Metallica edota Judas Priest taldeak ditu gustuko. Jazz fusion estiloa ere oso gogoko duela aitortu du: "Chikara Ueda & The Power Station 70.





hamarkadako Japoniako talde bat da, eta azkenaldian asko entzuten dut". Dena den, talde zehatzak entzuten baino, gitarra jole jakin batzuk aditzeko ohitura handiagoa duela adierazi du hark; adibidez, Shawn Lee eta Jason Becker estatubatuarren jarraitzailea da.

Dena den, gitarra irakasleaz gain, okina ere bada Alberdi. "Gitarra irakasletzat eta okintzat dut neure burua", argitu du. Ikasketak amaitzean Gasteizen bizi nahi zuela erabakita, dirua irabazteko asmotan hartu zuen amaren okin lekukoa, eta horretan jarraitzen du, musikaren eta ogien artean murgilduta.

Euskarazko edukiak

Musikarekiko duen zaletasuna komunikazioaren arlora eraman du azkoitiarrak. Izan ere, duela urtebetetik *Gitarrizketa* izeneko zuzeneko saioa egiten du. Twitch plataforma digitaleko kanalean Euskal Herriko gitarra jole desberdinei elkarrizketak egiten dizkie Alberdik. Orain arte, 37 izan dira astearte gauean, 22:00etan, zuzenean elkarrizketatu dituen musikariak, horien artean Liher taldeko Iñigo Etxarri, Belako taldeko Iosu Ximun Billelabeitia eta Olatz Salbador. Elkarrizketa gehienak metal musikaren ingurukoak izango zirela bazekiela

dio Alberdik, baina azaldu du saiatu dela "beste estilo batzuetako jendea" ere elkarrizketatzen. Aurtengo denboraldirako, berriz, erronka bat du buruan: emakumeei toki gehiago eskaintzea. "Egin ditudan 37 elkarrizketetatik bi bakarrik gauzatu dizkiet emakumeei, eta horrek lotsa pixka bat ematen dit". Dena den, emakumezko gitarra jole "gutxi" daudela adierazi du azkoitiarrak: "Abeslari edo *front woman* asko dago, baina gitarra joleak ez horrenbeste. Horregatik iruditu zitzaidan interesgarria,

Tibalt Alberdi

- **Adina:** 30 urte.
- **Ikasketak:** Historia gradua, Historia Garaikide masterra eta Rock Schooleko zortzigarren gradua gitarran.
- **Lanbidea:** Okina eta gitarra irakaslea.
- **Okina eta gitarra irakaslea ez banintz...** historia irakasle izango nintzateke.
- **Gitarra klaseak amaitzean gogoko dut...** telesail bat ikusiz sofan lasai egotea.



adibidez, Olatz Salvador elkarrizketatzea. Nahiz eta ez den nire estiloko musikaria, garrantzitsua iruditu zitzaidan hari elkarrizketa egitea".

2020an, pandemiaren eztandaekin, "ganorazko" bideoak egiteko azpiegiturarik ez zuenez, zuzeneko edukiak sortzeari ekin zion etxetik, gitarra jotzen, inprobisatuz eta euskaraz. Une hartan, #3000Twitz kanpainan sartu zen Alberdi. Kanpaina haren bitartez, Twitch plataforma digitalean #euskara etiketa jarri ahal izatea eta eskal eduki sortzaileei bultzada ematea lortu nahi zuten. #3000Twitz kanpainarekin lortu ez arren, etiketen unibertsalizazioari esker lortu da #euskara etiketa jarri ahal izatea, eta horren aurrean gustura da Alberdi. "Bi urte eman ditugu kontu horrekin borrokan, eta ez digute kasurik egin, baina orain, etiketen unibertsalizazioarekin posible da #euskara etiketa jartzea. Hori beharrezkoa da eskal sortzaileak batzeko eta denon artean indarra egiteko". Hizkuntzaren hautua garrantzitsua dela iritzi dio azkoitiarrak, baita edukiak izango duen oihartzunari dagokionez ere: "Nahiz eta jende gutxi aritzen garen euskaraz, gure leku txiki horretan oihartzuna edukitzeko aukera gehiago dagoela dio Aiora Probatxo YouTuber euskaldunak, eta

arrazoia du. Baina edukiak euskaraz sortzeko ideia dutenei dirua lortzeko itxaropenik ez izateko esan nahi diet". Sortzaile guztien kasuan, eta are gehiago euskarazko sortzaileen kasuan, horrelakorik ez dela gertatzen dio Alberdik. Hain zuzen, garrantzitsuena norbera aseko duen zerbait sortzea dela aitortu du. "Norbaite laguntzen ari zaren sentsazioak betetzen bazaitu, bikain, aurrera. Baina horrek ez zaituela beteko sentitzen baduzu, ez sartu mundu horretan. Edukiak sortzeari denbora asko eskaini behar zaio, eta horiek gehien-gehienetan ez dira ordaintzen".

Hedabideen laguntza, beharrezkoa

Eduki digitalen unibertsoa ikaragarri handia da, eta sortzaile denek dute unibertso erraldoi horretan tokitxo bat egiteko zailtasuna. Horren aurrean komunikazio enpresek eta hedabideek duten papera ezinbestekotzat jotzen du Alberdik. Euskaldunek euskarazko edukiak kontsumitzea nahi baldin bada, eskal hedabide nagusienek eduki sortzaileei laguntzea "behar-beharrezkoa" da Alberdiren hitzetan. "Hedabideek hiru modutan lagun gaitzakete: dirua emanez, materiala emanez edo publizitatea eginez". ■



SAZTAINA ERREAK,
ZER DELA ETAP?

BIZIDUNEN ARTERA
GOAZ BISITAN ETA EZ
NIKE ESKU HUTSIK
JOAN NAHI

Engainagarriak

Bederatzi zati hausetatik bost engainagarriak dira, hau da, ez dira zehatz-zehatzak edo ez datoz bat inuldi nagusiarekin.



GAU BELTZA

Apirulu eta martatu.



Labirintoa

Gure Maripurtzil eta Pelloziri santa eskean doaz, baina aukeran, nahiago dute gutizia gozoa jaso, gaztaina bakia. Zein ote da goxokietaraino eramango dituen bidea? Aurki ezazu.

BIEKI-MARRAZKI ALPARTOA						
						
A	B	C	D	E	F	G
						
H	I	J	K	L	M	N
						
O	P	Q	R	S	T	U
						
V	W	X	Y	Z		

ISPILUTXO, ISPILUTXO...

ET, ET, ET, HORI GABONETAKO ABESTIA DA, ETA HAU SAU BELTZA DA!

KAKAI! EZ DUT PUTZIK IKUSTEN

GAZTAINAK ERRE ARTEAN, GAZTAINAK ERRE ARTEAN, TXIPLI-TXAPLA PUN...

ETA GOYOKIRIK EZ AL DA BATERE?



Gau Beltzak duen magiaren eragina izango da agian, baina gure laguntxoak ez dira ongi ispliatzen. Aurki itzazu aldeak. Bederatzi dira guztira.

Zer esoten ari ate da neskatoa? Jarri marrazkitxo bakoitzaren azpian dogakion hizkia albaka hizki-marrazki alfabetoari begiratu, eta berehala jakingo duzu.



Zer ote?

Hildakok gogoratzeko pizten den gauza honek zer izen du? Jarri marrazkitxo bakoitzari dogakion izena, hizki hizki, alboko lauki zurietan. Gero, lauki gorrietan gelditu diren letrak inakurri, goitik behera.



	A	B		
	G			R
			Z	
	H			X
	H	Z	D	
	K			L
	K			
			T	Z
	H		R	R
			T	
				A

Mezu gordea



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

Gurea, azkoitiarrez egitea

TESTUA ETA ARGAZKIAK:

KEPA ALBERDI

Azkoitiko herritarrak beti bizi izan dira euskaraz, gurasoetatik seme-alabetara pasatuz, eguneroko erabilerak ahalbidetu baitu antzinako euskara jatorraren arrastoa ez galtzea, nahiz eta gizaldietan, bere egokitze prozesuan, beste moldaketa batzuk hartu izan dituen.

Azkoitian hitz egiten den euskalkia, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaiko ipar-sartaldean hitz egiten dena da, bere ezaugarri bereziekin. Hemengo euskara gipuzkoarra da gehienbat, baina baditu mendebaldeko ezaugarriak, ziurrenik, Gasteiz hiri handia zenean, hara heldu, eta handik zabaldutako jatorria dutenak. Elgoibar, Eibar, Soraluze eta Bergarako hizkeraren eragina ere heldu da Azkoitira, herri horiek industria-gune indartsuak izanik, azkoitiar asko joaten baitzen hango lantokiara lanera. Azkoitiko euskarak herri horietako hizkerarekin duen loturaren adibide, *-teke* edo *-tzeke* atzizkia da: *jasotzeke*, *eitteke* edota *ikusteke* hitzek adierazten duten moduan. Arraroa bada ere, Azpeitiko euskarak ez du horrelako eraginik, historian zehar Eibar aldeko herri horiekin askoz harreman gutxiago izan baitu. Baina ez da gauza bera gertatzen hitzaren bukaerako *a* hizkiak, kasu askotan, *ie* forma hartzen duenean; hori ere Gasteiztik etorritako joera da, baina kasu horretan Azkoitian, Azpeitian

zein Errezilen era berdinean erabiltzen da; ez, ordea, Bidanian eta harantzagoko herrietan.


Bada beste joera xeble bat Azkoitiko eremu desberdinetan entzun daitekeena: herrian erabiltzen den *-xe* bukaera, esaterako, Martirieta auzoan *-ye* bukaera erabiltzen dute erabat, Azpeitian bezala. Bestalde, Jauregi baseritik gorako baserrietan ere ohikoa da *-dxe* antzeko bukaera entzutea, eta esan daiteke Olaso eta Madariaga aldean ere desberdin hitz egiten dela.

Orain arte, tokian tokiko euskara erabili bada ere, azken hamarkadatan gero eta gehiago baliatu da euskara batuaz, kasu batzuetan besteena ulertzeko, eta besteetan, beraiek norberarena konprenitzeko. Batua tresna garrantzitsua da euskara mundura hedatzeko, eskualde eta herrialde desberdinetakoak elkar hobeto ulertzeko, besteak beste. Baina ezin da azkoitiarron euskalkia, batuaren mesedetan, alde batera utzi. Biak dira hizkuntza beraren aberasgarri, bakoitza bere esparruan. Horregatik, ezinbestekoa da Azkoitiko euskalkia bultzatu eta egunerokoan erabiltzen ahalegintzea. Egia da Azkoitiko

**SENIDE ETA TARTEKOEN
IZEN ASKO ERE
GALTZEN ARI DIRA,
ASKOZ GUTXIAGO
ERABILTZEN DIRELAKO**

hitz jator asko galtzen ari direla, eta gezurra badirudi ere, gaur egun ulergaitzak egingo diren era askotako esaldiak egon daitezke, nahiz eta horiek Azkoitiko betiko hitz jatorrez osatuta egon. Hona herriko hitzekin osatutako esaldi batzuk: "Gorri hots ederra atera zuen konpezinauak, zarboari erreprentzixue egin arren, honek zelemon eitten zuela eta", (Maldizio ederrak bota zituen auzoko arduradunak, pertsona gaiztoari errieta egin arren, honek edozer gauza egiten zuela eta); "boldoxorra izateaz aparte, xipulerue eta purtzille zen", (gizajo antzekoa izateaz gain, ilea ez zuen garbitzen eta narratsa zen); "puzkerbutroiak ere beti txerri einda ibiltzen zittuen", (galtzontziloak ere beti zikinak erabiltzen zituen).

Azkoitian, bertako hitz asko galdu dira eta galtzen ari dira, eta horren arrazoi nagusienetakoa zera da: garai bateko hainbat tresna, diru, arropa eta abar gaur egun ez dira erabiltzen, eta horrek eraman du haien izenak galtzera. Baina euskara batuak ere badu bere eragina, herrian egunerokotasunean erabiltzen diren hitzen lekua bereganatzen ari baita, pixkanaka. Errealitate hori baieztatzeko, hona hemen adibide batzuk: *aittitite eta amama* / aitona eta amona; *laino* / hodei; *ilatargi* / ilargi; *keriza* / itza; *jakina* edo *bai ba* / noski; *ahalegindu* / saiatu; *laga* / utzi; *tente* / zutik. Hori horrela, umeek beren aitona-amonei euskaraz zein gaizki hitz egiten duten aurpegiatu diete kasu



Azkoitiko garai bateko ikuspegi orokorra.

askotan, hain hiztun zoragarriak direnak konplexuz betez. Horregatik, hain gureak diren hitz jatorrak mantendu eta irakatsi behar dizkiegu ondorengoei, bestela, laster galduko baitira *artamoruz*, *bixen bittertin*, *naxena*, *ostin*, *txaplanin*, *mixerikordiko madrie*, *ixixe* eta beste ehunka hitz jator.

Azkoitiko euskarari, era desberdinetan dei daiteke gauzei, tresnei, eguraldi fenomenoari, pertsonen izateko erei eta abar. Pertsonaren izaerari dagokionez, tontoari deitzeko, adibidez, *azastrue*, *lapikoa*, *artaburua*, *tentela*, *kaskajoa*, *txoriburu*, *txoripitue* eta tankerako hitzak erabiltzen dituzte. Era berean,

homosexualei, gehienetan modu iraingarrian deitzeko, era hauek erabili izan dira: *atzelaixe*, *beste espalokue*, *mari mutil* eta *titolixe*.

Animaliei deitzerakoan, lehen hemen bertan bakarrik erabiltzen ziren izen batzuk bere lekua galtzen ari dira. Esate baterako, *attitte mendikoteko* izena erabili kakarraldoari deitzeko? edo *katamarrue*, basakatuari deitzerakoan? Horiek dira gorde behar ditugun izenak, horiek baitira geureak. Gerta liteke, halaber, animalia bat izen bakar batez identifikatzea, haren ezaugarri edo berezitasunengatik bere izen propioz bereiztea hobe litzatekeenean. Adibide bezala *txerrixe* izena ipini dezakegu,

bertako baserrietan, betidanik, *katxapue* deitu izan zaionean txerri arrari, *apue* txerri ar zaharrari eta *ordotsa* txerri ar gazteari. Gauza bera gertatzen da baserrietako animalia emeek estalketarako arrei deitzen diotenean, *ernaldu* edo *estali* hitzak soilik erabiltzeko joera gero eta handiagoa baita, betidanik, animalia mota desberdinak kontuan hartuz, honako deiturak erabili izan direnean: *arkea* (ardia ar eske dagoenean), *igel* (behorra ar eske dagoenean), *irausi* (txerria ar eske dagoenean), edo *susa* (behia ar eske dagoenean).

Azkoitiko euskalkiaren aberastasuna, era berean, sinonimo desberdinak erabiltzeko modu ugarien bidez



Marixa auzoaren argazki zahar bat.

neur daiteke, kasu bakoitzean ematen diren bereizgarriak kontuan hartuta. Esate baterako, zarata adierazteko, *burrundaie*, *danbaie*, *kurruxkaie*, *ardaxe* eta abar erabiltzen dira. Kantitatea adierazteko berriz, *galanki*, *mordue*, *lepo* eta *pillue* erabil daitezke, besteak beste.

Elikagai eta otorduen deiturei begiratzen badiegu, *afai-legie*, *amortzue*, *albarretxikue*, *esnetelie* eta antzekoak oraindik ere tarteka entzun arren, arraragoak egiten zaie batzuri, zer esanik ez gazteei, *konpittie*, *litxerkeixe*, *lapikokue* edo *tokolue* bezalako hitzek. Dena den, gai berari lotuta, badira denborarekin galtzen doazen hitzak ere, esate baterako, *morokille* (artirinez egindako janaria), *nahazkixe* (ogi integrala edo beltza), *kañarie* (salda egiteko erabiltzen den hezurra), *entramie* (jateko edo edateko erraztasuna) edo *perdigaixue* (olio erretan tipula botatzea).

Izan ere, jateko produktuak aldatzen goazen heinean, duela gutxi arte kaleko etxeetan zein baserrietan hain arruntak ziren elikagai edo jatekoari lotutako hitz arruntak, galtzen doaz modu natural batean.

Senide eta tartekoen izen asko ere, garai batean baino askoz gutxiago erabiltzearen ondorioz, galtzen ari dira. *Besotakue* edo *amaginarreba* terminoak erabiltzen jarraitzen badituzte ere, arraro edo ezezagunagoak dira honako ahaidetasun hauek: *exkurrumie* (alaba edo seme gaztea), *aixkirie* (laguna, senargaia edo emaztegaia), *ugazumie* (semeordea), edo *ugezarreba* (arrebaordea).

Eguraldiari buruz erabiltzen diren hitzei begira jarrita, Azkoitiko hiztegia oso aberatsa da, bai bertan oraindik euskara jatorrak duen indarragatik eta baita baserri giroa bizirik mantentzen delako, azken eremu hori baita, neurri handi

batean, lanbide eta ohitura zaharrei eutsiz, horiei lotutako hitz eta esaera zaharrak mantendu dituen. *Erromako zubixe*, *landurie*, *euzki galdie*, *serenue* edo *lantzurdie* izen ezagunak eta ohikoak badira ere, ezin berdin esan *oiñeztarrixe* (tximista), *euterie* (toki eguzkitsua) edo *illuniztentzixe* (gaua denean edo ilundu duenean) hitzengatik. Baserriko tresna eta lanbideen jatorrizko izenek ere galera handia jasan dute, lanen mekanizazioaren eragina tarteko. Adibidez, *zopizerrin eñ* (belarra azaletik moztea) lanari ematen zaion izena ia ez da erabiltzen. Lan tresnei dagokionez, *aiotza*, *pertxuna* eta *zokor mazue* bezalako tresnen izenak oraindik ezagunak egiten badira ere, *artojoixe* (artaburuak jotzeko tresna) eta *ozpikue* (bi hortzeko sardea) galtzen ari diren tresna izen batzuk dira.

Gorputzaren atal desberdinak izendatzeko moduari dagokionez, badira herrian ondo errotutako hitzak, esate baterako, *atxakarrena*, *este-sobrie*, *koskabiluk* edo *tripeko botoie*. Gaixotasunak izendatzerakoan, gaiz askok izen propioa dute herrian, esate baterako, *astanaparreixe* eta *gornixe*. Azalean izaten diren infekzioek ere izendegi luze eta zabala dute: *zulderra*, *perlie*, *azkordiñe* (ospela), *garitxue*, *azpizarra*, *erlakristena*, *bekatxue*, *legena*, etab.

Herrian erabiltzen diren aditz asko ere oso errotuak daude aspalditik, eta oraindik erabiltzen dira horietako



Martirieta auzoaren antzinako irudi bat.

batzuk: *harrike bota*, *merkexurrin ibili*, *ostixena jo*, *karriau*, *laptrax ein* eta *andarikun ibili*.

Normaltasunez erabiltzen jarraitzen diren onomatopeiak ere badira: *di-da* (azkar) edo *kili-kolo* (kolokan). Baina badaude egun hain ezagunak ez direnak ere: *zinbili-zonbolo* (kulunka), *ranga-ranga* (ura edaten) edo *blaust* (luze erortzea), adibidez.

Diru txanponen aldaketek ere beti markatu dute garaian garaiko diruari deitzeko modua, eta horra non, gaur egun herriko aittitte-amamei *errila* (25 zentimoko txanpona), *errilbikue* (50 zentimoko txanpona), *txakur haundixe* (10 zentimoko txanpona), *hiru kuartokue* (txanpon bat), *xemeikue* (bost zentimoko txanpona) *imillaune* (erreal baten laurdena) edo *pezeta haundixe* (bi pezeta eta erdiko txanpona)

entzuterakoan ez zaizkien batere arrotz egiten izen horiek, bertako gazteei ez bezala.

Elizkizunek, prozesioek eta, oro har, kristau fedeari lotutako ospakizunek ere hiztegi berezia dute. Horrela, kanpai-ukituei edo kanpaiei beraiei ematen zaien izen desberdina (*dun-dun haundixe*, *dun-dun zaharra*, *matutixe...*), Aste Santuko prozesioan irteten den soldadu erromatarra (*armatue*) eta antzina deabruari deitzeko modua (*inpernuko txikito*) aipa daitezke.

Bestalde, pilota jokoak eta abarketaren industriak aparteko kapitulu bat merezi dute Azkoitiko euskalkiari eskainitako lanean. Bata zein bestea oso errotuta egon dira Azkoitiko biztanleen bizitzan, eta, horregatik, bi gai horiei lotutako lexikoa oso aberatsa da herrian. Pilotari

dagokionean, Kontzejupean "pilotan kurutze barruan jokatzea", pilotak barruan eramaten duen egur zatia *kixkixe*, pelotak bi horma arteko ertza jotzen duenean *paretxiki*, edota horma eta zoruaren arteko ertza jotzen duenean *txosta* hitzak dira Azkoitian pilota joko kontuan erabiltzen direneko batzuk. Abarketa munduan, berriz, badira aurreko belaunaldiei entzun eta oraindik gogoan diren hitz batzuk: abarketak jostearena (*errefortzaketa*) eta bost dozena abarketei ematen zaion izena (*txortie*), adibidez. Herritarren artean hain ohikoak ez diren beste hitz batzuk ere badaude: abarketei tela jostea (*kapillaketan eittie*), abarketak josteko modu bat (*tariketie*) eta txortan egiteko erabiltzen zen hariaren izena (*txarrantxie*), esate baterako.

Azkoitiko hizkeraren argazki xume honetan aipatutako hitz jator asko oso ezagunak egingo zaizkie herriko zaharrenei, eta erabat ezezagunak bertako gazteei. Hitz horietako asko eta asko altxor dira oraindik, eta azkoitiar gisa, horiek berreskuratu, babestu eta indartzen saiatu behar dugu. Horretarako, gakoa Azkoitiko euskalkia naturaltasun osoz erabiltzean datza. Batua eta biak dira zuzen, egoki, adierazgarri eta aberatsak, baina ezin dugu Azkoitiko euskara batuaren mesedetan abandonatu. Herriko euskalkiak aparteko gatza eta piperra ditu, eta azken finean, gureagoa dugu. ■■■

Agur, Elosuko mendi ganadu feriari

Irailaren hasieran iritsi zen "aspaldian nabaria" zen albistea Elosua auzotik. Elosuarrek hala erabakita, urriaren 12an urtero auzoan egin izan duten mendi ganadu feria gehiago ez dute egingo. 2019. urtean antolatatu zuten azkenekoz feria, historian 41. aldiz.

Testua: **Andoni Elduaian.**
Argazkiak: **Andoni Elduaian,**
Maxixatzen eta utzitakoa.

Urriaren 12a bestelakoa izango da aurrerantzean Elosuan, auzotarrek hala adostuta, mendi ganadu feria behin betiko bertan behera utzi baitute. Azken urteetan feria eguna antolatzen aritu diren eta ferian parte hartu duten hiru lagun dira Joseba Lizarralde (Azkoitia, 1965), Sorkunde Aranbarri (Azkoitia, 1968) eta Iñigo Zubeldia (Donostia, 1970). Zubeldia Elosuko auzo alkatea da egun, eta hark adierazi du bilera bakarra egin zutela feriatan gaineko azken erabakia hartu ahal izateko. "Bilera egiteko deialdia zabaldu genuen, baina auzoan bizi garenok bakarrik elkartu ginen. Zurrumurrua bazebilen, aurten auzoan feria egingo ote zen edo ez. Azken unera arte utzi nahi izan genuen guztia, zer gertatzen zen ikusteko. Jendeak, ordea, ez zuen garbi ikusi kontua, eta hori horrela izanda, ezin zitekeen eguna antolatzen jarraitu". 2019. urtean egin zuten XLI. Elosuko Feria, guztietan azkena. Dena den, Lizarralde dio zurrumuru antzu ugari entzun izan zirela 2019a baino lehenagoko urteetan ere. "Urte askoan esan izan da Elosuako feria gehiago ez dela egingo, baina esan horiek ez zuten izaten ez bururik eta ez hankarik. Aurten arte sekula ez da egon feria bertan behera uzteko inolako asmorik; arazoak areagotzen joan dira, noski, auzoko jende gehiena adinean aurrera doalako eta gazterik ez dagoelako".

Azkoitia eta Bergara arteko auzoko feriak badu bere historia. Lizarralde entzuna duenez, duela bi mende inguru Gorlako kantinaren inguruan izaten zen feria eguna. Iturriberri gaina bezela ezagutzen zan garai hartan, eta aurrez, San Adrian bezala, han zegoen ermitagatik. Gero, ordea, utzi egin zioten hura antolatzeari. "Esan izan digutenagatik, han lapurreta batzuk izan ziren orduan, eta feria antolatzeari utzi zioten". Zenbait elosuar Gorlako feria auzoko plazara eramateko lanetan hasi zen hamarkada batzuk geroago, eta 1978an egin zuten aurrenekoa. Hirukoteak gogoan du, esaterako, hasierako ferietan azken urteetan baino animalia gehiago izaten zirela plazan. "Plaza ganaduz beteta egoten zen, eta elkartaren atzeko zatian kokatzen ziren artisauak eta





**Ezkerretik eskuinera, Zubeldia,
Lizarralde eta Aranbarri.**

saltzaileak. Gerora, aldatu egin zen pixka bat antolaketa". Hala eta guztiz, Elosuko ferian egiten zuten lana ez zutela auzotarrentzat egiten nabarmendu dute hiru lagunek. "Auzo guztia elkartzen zen besteentzat lan egiteko, ez auzoaren edo auzotarren alde egiteko".

Elosuan bezala, inguruko herrietan eta auzoetan urteetan egin izan diren beste ganadu feria asko ere bertan behera gelditu dira. Arrazoiak askotarikoak dira, baina urtez urtez ganaduzaleei zuzendutako araudiak aldaketak eragina izan du. Eguna feria izenpean antolatzeko, animaliek ganadu kanpaina eginda egon behar izaten dute, eta horrek "kostu handia" duela diote. Hori horrela, urriaren 12ko feriarri izena ere aldatu izan diote; urte askoan eguna feria izenpean antolatu izan badute ere, araudia aldaketengatik erakusketa izenpean ere egin behar izan dute sarri askotan. "Urtez urte gero eta zailtasun gehiagorekin egin dugu topo".

Ganaduzaleen moduan, artisauak eta saltzaileak ere plazarik gabe gelditzen ari direla dio Andres Etxabek (Legazpi, 1964). 25 bat urtez joan izan da hura Elosura bakailoa, gazta eta bestelako produktuak saltzera. "Penaz" hartu du berria legazpiarrak ere. "Urtero joaten ginen Elosura, eta oso giro ona aurkitzen genuen han. Feria egiteko toki polita eta berezia zen; izan ere, hemen inguruan ez dago naturan egiten den beste feriarik". Horrelako egitasmoentzat "etorkizun tristea" aurreikusten du saltzaileak, eta erakundeek halakoak lagundu egin beharko lituzketela uste du.

Hartu dutena erabaki zaila izan da bizilagunentzat, auzoarentzat "egun handia" izan baita azken urteetan urriaren 12a. "Ilusio eta gogo handia izaten genuen feria eguna iristeko. Elosua beti izan da guztia guztion artean egiteko auzoa. Belaunaldi desberdinetako jendea batu izan da beti lanerako eta festarako. Gazteak ginenean, sekulako jende pila elkartzen zen auzoan lan egiteko, baita auzotarren lagunak ere", azaldu du Aranbarrik. Jende horrek guztiak, ordea, lanera etortzeari utzi ziola adierazi du Lizarralde, eta auzoan gazterik ez dagoela nabarmendu du hark. "Auzoan 25 urteko lau gazte bizi izan balira, feria aurrera ateratzeko modua izango lukete nolabait. Elosuan, ordea, ez daude 25 urteko lau gazte, eta bakarrik ez dago eguna aurrera ateratzerik". Auzo alkateak, bestalde, jendea zahartzen joan den heinean, auzotarren artean "freskotasuna" eta "bizipoza" agortzen joan direla azpimarratu du, giroa "tristetzen" joan dela iritzita. Dena den, eta feria egunean egiten zuten lanari balioa emanez, Aranbarrik gogora ekarri ditu Elosuko emakume guztiak: "Emakumeengatik izan ez balitz, feria eguna ez genukeen antolatuko. Emakumeok lanean aritzen ginen egun osoan zehar, eta ia ez genuen kanpoan zena ikusi ere egiten; izan ere, goizean goiz lanera sartu eta iluntzera arte ez ginen ateratzen plazara. Gainera, emakumeek jartzen zuten giroa ere ederra izaten zen, beti aurpegi alaiak erakusten zituzten".

Erraztasunik ez, ondorengorik ez

Auzotarrek egindako kalkuluen arabera, egun 30-40 pertsona inguru bizi dira Elosuan, eta haiek feria behin betiko etengo zutela jakinarazi zutenean, auzoan "oinordekotza falta" zutela nabarmendu zuten. "Landa eremuetan ez da bermatzen oinordekotzarik, ez baitago erraztasunik auzo horietan bizitzeko. Elosuan lagun kopuru jakin bat bizi gara, eta norbaitek zerbait behar baldin badu, herrira jaitsi beharra du nahitaez", azaldu du Zubeldiak.

Aranbarrik baieztatu egin du auzo alkatearen esana, eta aitortu du beraiek "zorte apur bat" izan zutela. "Haurrak eskolara eramateko, auto bat etortzen zen haien bila, baina gaur egun zerbitzu hori ere ez dago".

Auzoan "ezer gutxi" daukatela salatu dute auzotarrek, eta jakinarazi dute gaur-gaurkoz duten zerbitzu bakarrenetakoak zaborrarena eta postarena direla, baina horien onurak Bergara aldeko auzotarrek soilik jasotzen dituztela. "Elosutik Azkoitia aldera dugun lehen hondakin gunea Ipintzan daukagu, Garbigunean. Auzora ez dira etortzen zaborra jasotzera; Bergara aldetik, berriz, egunero. Eskaera egin genuen Azkoitiko Udalean, baina zabor ontziak Olotzagan jarriko zizkigutela esan ziguten. Guretzat ez dago alde handirik edukiontzia Garbigunean edo Olotzagan edukita", azaldu du Aranbarrik. Posta, bestalde, ostiraletan iristen da auzora Bergara aldetik.

"Azkoitia aldeko auzotarrak Jandaloko bidegurutzean dugu postontzia, eta oso egoera txarrean dago. Barraskiloak sartzen dira barrura, eta gutunazal asko horiek janda aurkitzen ditugu. Postontziaren atea, berriz, asun artean zabaldu behar izaten dugu".

Sendagileen bisitak ere jasotzen zituzten lehen baserrietako aiton-amonek, baina diotenez, horiek egun ez dira auzora iristen. "Lehen medikuren bat etortzen zen aldiro-aldiro, baina gero etortzeari utzi zioten; urteak dira zerbitzu hori galdu genuela. Helduentzat eta haurrentzat zerbitzurik ez baldin baldin badago auzoan, gainerako auzotarrak horien guztien esklabu egiten gaituzte eta ez dugu inolako erraztasunik. Zerga guztiak ordaindu behar izaten ditugu, beharbada kaleko herritarrek baino gehiago, baina erakundeek ez dute auzotarrontzat Elosura garraioa jartzeko gaitasunik. Zerbitzu horiek defizitarioak direla erantzuten dute, baina argi izan behar dugu zerbitzu publikoak zerbitzu solidarioak direla definizioz, ez etekin ekonomikoa lortzeko zerbitzuak", dio Zubeldiak. Auzotarrek sumatzen dituzten arazoan artean bada beste bat ere: Aitzarra baserrietik Aizpuruxora doan errepidea "oso egoera txarrean" dagoela diote, "txiki-txiki" eginda eta "ebakita" baitago.

Auzoan ilusioa berpiztu nahian

Elosuan feria 41 urtez egiteko gako nagusia auzolana izan da, eta giltzarri horri eutsi nahi diote auzoan ilusioa pizteko. Ikastaroak, tailerrak eta kontzertuak antolatuta dituzte azken hilabeteetan. Era berean, auzoko apaizetxearen kuadeaketa ere elosuarren esku dago orain. "Pandemiaren aurretik gotzaindegiak eskakizun handiagoak zituen, baina haren ondoren gure esku utzi zuen lekua, hura zaintzearen eta hobetzearen truke", azaldu du Zubeldiak. Auzotarrei "interesgarria" iruditu zitzaion apaizetxea kudeatzea, uste baitute modu horretan auzoari "bizi pixka bat" eman ahal izango diotela.

Proiektu bat esku artean zutela hartu zuten apaizetxearen ardura elosuarrek, nahiz eta azken urteek ez duten gehiegi lagundu hura gauzatzen. "Proiektua gauzatzeko diru asko behar zen, eta ez genuen horretarako prest zegoen erakunderik aurkitu; inork ez du ganorazko ezer egiteko dirurik jarri nahi". Hain zuzen, auzotarrek apaizetxean aterpetxe bat jarri nahi dute. "Gure txikian ari gara zerbait egin nahian, baina ez dakigu zehazki zer bide hartuko duen". Auzoa ilusioz berpiztea da elosuarren nahia, "bestela, akabo". ■



Andres Etxabe, eskuinean, bere salmenta postuan.

**"AURTEN ARTE
ELOSUAN EZ DA EGON
SEKULA FERIA BERTAN
BEHERA UZTEKO
INOLAKO ASMORIK"**

**"APAIZETXEA GUK
KUDEATUTA, IRUDITZEN
ZAIGU AUZOARI BIZI
PIXKA BAT EMAN AHAL
DIOGULA"**

Puntarik punta

Mila metrotik beherako mendi tontorrak daude Azkoitian; batzuk ezagunak, eta beste batzuk, ez hainbeste. Hirukurutzetako, Izaipiko eta Izarraizko mendilerroetan kokatzen dira gehienak. Tontor garaiez gainera, bajuxeagoak diren mendi gain ugari ere baditu udalerrriak.

Testua: **Nerea Uranga**. Argazkiak: **Ihintza Elustondo, Ane Olaizola eta Udane Juaristi**.

EZAGUNENETAKOA, KAKUTA

Kakueta, Kakuta (927 metro), Izarraitzko mendikatean dago kokatuta, eta Azkoitiko gailur ezagunenetako bat da. Anaitasuna Mendi Bazkunak antolatuta, Kakutako eguna ospatzen dute mendizaleek maiatzeko lehen igandean.



GARAIENA, SAMIÑO

Samiño, Hirimugarrieta, edota tontorreko harrian ipintzen duen bezala, Iruarrieta. 933 metroko altuera du. Azkoitiko udalerrriaren mugen barruan dagoen mendien artean garaiena da. Azkoitiko, Azpeitiko eta Zumarragako udalerriek gain horretan egiten dute muga. Izazpiko (973 metro) mendilerroan dago Samiño, eta Historiaurreko aztarna ugari daude bertan: Elorrietako tumulua, Pagobakarra tumulua, Iruarrieta I eta Iruarrieta II tumuluak eta Hirumuhgarrietako trikuharria. Samiñoren hegoaldean Gurutzetako (928 metro) tontorra dago.



IZARRAIZKO MENDILERROAN, HAINBAT TONTOR

Kakuta izan arren tontorrik ezagunena, beste hainbat gailur ere badaude Izarraizko Azkoitiko mugetan, eta horietako batzuk dira honako hauek: Makola edo Marakola (701 metro), Kakutaren hegoaldean; Putraeraitzeko gaina edo Gazteluko gaina (887 metro), Kakutako kresterioaren mendebaldean, Kakutako eta Aizpeltzko (890 metro) tontorren artean; Aitzondo (759 metro), Aittolako Zorrozpeko aparkalekutik bistan dagoena (argazkian, hango tontorretik dagoen ikuspegia); eta Urnobieta (644 metro), Azkarate gainetik gertu.



MUGA-MUGAN: MUNOAUNDI BAT

Azkoitiko hainbat mendi gainetan mugarriak aurki daitezke, inguruko herriein muga egiten duela adierazten duten harriak. Munoaundin (385 metro) –argazkian– nahiz Txalintxon (385 metro) Azkoitia eta Azpeitia arteko mugarriak aurki daitezke. Txalintxoko gurutzea Azpeitiko lurretan dago, baina gertu-gertu, ezker aldera, dago bi udalerrien arteko mugarria.

Munoaunditik herriaren bestaldera, Urnobietan dago Azkoitiaren, Elgoibarren eta Mendaroren muga. Handik hurbil, Azkarateko gainean, Elgoibarrekin egiten du bat Azkoitiak. Agerreburun (857 metro), berriz, Bergararekin egiten du topo Azkoitiak, eta Samiñon, Azkoitiak, Azpeitiak eta Zumagarrak egiten dute bat.



IRIAUN, NAFARROAKO ERREINUA

Elosua auzotik bertan dago Iriaun (563 metro) mendiaren tontorra. Nafarroako Erresumaren defentsarako gunea izandakoa da, eta X. eta XI. mendeetako gaztelu baten arrastoak daude bertan. Gaur egun, gunea jabetza pribatukoa da, eta eraikin hori egin zutenean, aurretik zegoena eraitsi egin zuten.



OLETA: ZENTRAL EOLIKOAREN ASMOA

Oleta (837 metro) Izazpi mendilerroko gaina da, eta Samiñorekin lotuta dago, Akaitz Bazterra (826 metro) muinoarekin. Oletak bi tontor ditu, bigarrena Oleta Txiki (781 metro) da. Trinitate egunaren bueltan (maiatzaren hondarretan edota ekainean), Oletako eguna ospatzen dute mendizaleek. Meza eta erromeria egin ohi dituzte.

Capital Energy enpresak Oletan parke eolikoa egiteko *Buruzai* proiektua aurkeztu du, eta horrek hautsak harrotu ditu. Proiektu eoliko horren kontra egiteko Oletan ere Ez! taldea sortu dute hainbat herritarrek, eta egitasmoaren aurkako sinadurak ere bildu ditu.

HIRUKURUTZETA, HISTORIAURREKO MONUMENTUAK

Deba eta Urola bailarak banatzen dituen Hirukurutzeta (898 metro) mendilerroan Historiaurreko Megalitiko garaiko hainbat monumentu daude. Esaterako, Atxobasoko muinoan Agerreburuko trikuharria dago. Hiru tontor txiki batzen dira bertan: Hirukurutzeta, Kurutzezarra eta Kurutzebakar. Azkoititik gailurrera igotzeko, Urrategi auzotik doana da mendizaleentzako biderik ohikoena. ■■■



Hitz politikak



MAITE LOPEZ

Nago gauza zatarrak adierazteko hitz politen erabilera erabat normalizatu dugula. Alegia: ekintza itsusiak, egoera deserosoak nahiz jokamolde lotsagarriak azaltzeko zientzia liburuetatik ateratako hitz jasoen jiteko esamoldeen erabilpena (sarritan okerra, beste norbaiti entzundakoa eta buruz ikasitakoa) zeharo barneratuta dugula sumatzen dut nonahi. Zenbait gauza, itzulunguruka beharrean, zuzenean esateak pertsona txartzat hartzeko arriskua saihesteko geureganatu dugun otzantasun hedatuak asaldatzen nau.

Ez naiz ari, baten batek zaharrak trapuak direla esanez lotsarazi aurretik, ondo geratze aldera, *nagusi* edo *adineko* hitzen ordezkatzeko epelaz. Ez. Ez naiz ari ezta ere politikariei hain lagungarri zaizkien eufemismoez, ez baita komeni ahaztea murrizketa bakoitzaren atzean, esate baterako, kaleratze asko daudela. Eta ez dihardut komunikabideetan errealtate gordina nahiz ezatsegina estaltzeko erabiltzen diren mozorro hitzen inguruan ere. Oraindik gogoratuko dituzuelakoan, adibide pare bat: *positibo faltsuak* eta *negatibo faltsuak* oker egindako diagnostikoak

besterik ez ziren; edo dagoeneko iraungi den normaltasun berri hura ere, oraingoa zaharra, berria ala normaltasuna denik ere ziur jakin ez arren. Zer axola dagoeneko, ordea, horrek, *inbasio* izendatutako gerra baten ondorioak jasaten hasi besterik egin ez omen garen zalantzazko garaiotan?

Orobat, tabuak eta hitz potoloak alde batera utzi nahi ditut, lehenengoak isilik gorde beharrekoak direlako haserrealdirik izan nahi ez badugu, eta bigarrenak berez ñabardura baztertzaila estalpetzen duelako. Are janari lasterrari zabor-jana deitzeak eragiten didan higuinagatik, disfemismoak ere bazter utziko ditut.

Horregatik guztiagatik, hitz politei buruz jardun nahi dut. Gauza bakoitza bere izenarekin adierazteko alegatua egiteko asmoa dut. Gauzak diren bezala esateko aldarria. Izen bakoitza bere izenarekin deitzeko deia.

GAUZA BAKOITZA BERE IZENAREKIN ADIERAZTEKO ALEGATUA EGITEKO ASMOA DUT

Azken boladan, esaterako, gehien nabari izan dudan joera da aurrez aurrekoak ez diren harremanetan, Whatsapp bidezko talde elkarrizketetan kasu, marrazkitxoek ordezkatzeko dutela igorlearen adeitasun gabezia. Idazteko gogorik ez daukagunean, edo norbaitek idatzitakoak bost axola digunean, bizpahiru txalo edo aurpegi irribarretsu bat, eta kito. Maiz, bestalde, baten batek taldean botatako albisteari lotsagabeki ez ikusiarena egin, eta beste norbaitek oso bestelako gai batekin gaina hartzen du, aurrekoaren baztertze nabaria inork aipatu ere egin gabe. Ezabatzea eta ez erantzutea onesten dugu. Estaltzean, denok gara konplize.

Egunerokoan gero eta ohikoagoak zaizkigun halako jokabideak normaltzat hartzen ditugu, bai baitaukagu errespetu gabezia, jendetasun falta, hezibide txarra eta utzikeria nabarmena definitzen eta defendatzen laguntzen dizkiguten azalpen leungarriak: noski, harreman inpersonalak omen, denboraren kudeaketa birtualaren konplexutasunaren eragina omen, eta txor-txor-txor. Infantilismoa dugu ihesbide, eta koldarkeria bidelagun. ■■■

IZAN KA IRAKUR ZALE!



**EGIN BAZKIDE ETA %30 EKO
DESKONTUA IZANGO DUZU**
bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41

MAXIXATZEN

LAGUNTZAILEA



Departamento Foral Administrazioa



Ilargiaren ezkutuko aldea



AITOR ARRUTI

Jose Saramago idazleari irakurri nion behin gure planetan pertsona bakar bat goseak dagoen bitartean ezin dela onartu espaziora koheteak bidaltzen ibiltzea. Hogeita bost mila lagun inguru hiltzen dira egunero orain desnutrizioz, eta munduko herrialde ahaltzuenak espazio ontziak aineratzen dabilta, kontzientzia garbiz. Eta kontuak zer diren, artikulu hau idazten ari naizen unean, ilargira iristeko Artemis I misioko jaurtiketa bigarren aldiz atzeratu dute.

Ilargirako misioaren kontuak argitzeko, AEBetako Kaliforniako Stanford unibertsitateko Eneko Axpe fisikariarekin egin dute bat EITBko kazetariak, NASArako ere lan egiten baitu Barakaldoko zientzialariak, Maisha MC rap kantaria izateaz gain. Euskadi Irratian askotan entzun izan dut, eta lehen aldiz aditu dut gaur gaztelaniaz hitz egiten, ETB2an. Axpe orain arte euskaraz aditu ondoren, zenbait burutazio eragin dizkit haren azalpenak espainolez entzuteak.

Duela urte batzuk, plataforma bat sortu zuten hedabideetan agertu ohi diren lagun batzuek, euskaraz dakien jendeari euskal komunikabideetan adierazpenak euskaraz soilik egitea eskatzeko, eta izan zuen nolabaiteko eragina. Kazetariak elkarrizketatu euskaldunari bi hizkuntzatan erantzuteko eskatutakoan, euskaraz bakarrik ihardetsiko zuela esango zion

elkarrizketatuak kazetariari. Oraindik ere badira horretan jarraitzen duten elkarrizketatuak, baina jende gehienak bi hizkuntzetan erantzuten duela esango nuke.

Euskaldun batek esan dezakeena hedabideentzat interesgarria baldin bada, kazetariak alderantziz jokatu beharko lukete. Euskaldunari euskaraz soilik egiteko eskatu beharko liokete, eta hala jokatzeari saritu egin beharko lukete bai elkarrizketatua eta bai kazetaria, ganorazko hizkuntza politika bat aplikatuko baldin bagenu euskal herrietan. Euskaraz mintzo diren ereduak bultzatuko genituzke horrela, bertako hizkuntzari dagokion balioa emanda, hizkuntza gehiago jakiteagatik elkarrizketatuari lan bikoitza ezarri beharrean. Horretarako, euskaraz bizi daitekeen Euskal Herri batean sinesten duten agintariak beharko genituzke erakunde guztietan, eta, badakit, ilargira koheteak bidaltzea baino zailagoa da hori, are munduan gosea desegitea baino gaitzagoa ere bai akaso.

Agintari euskaltzale taxuzkoak izango baldin bagenitu, euskararen aurkako ikasle gutxiago izango lituzke Lorea irakasleak Donostian, gaztelania gutxiago eta euskara gehiago entzungo genuke Azkoitiko kaleetan eta euskaldunok ilargiaren ezkutuko aldean bizitzeari utziko genioke. ■

Bertsoa paperean

Gaia: Euskal Herriko Bertso Txapelketa 2022
Izena. Iñaki Tolosa Alberdi.
Doinua: *Zer da gaur Donostian*.

Hasi berria dugu

bertso txapelketa bertsozale guztiok jarriaz arreta oso gogotsu gaude indarrez beteta asko gozatzea da guk daukagun meta azken bost urteotan ez da izan eta.

Lujanbio, Arzallus

Colina, Alaia iritsi zaie denei lehiako garaia txapela janztekotan dute bide zaila berdin du neurri doinu errima ta gaia ondo egitea da eurek duten nahia.



www.maxixatzen25urte.eus 🔍

AURKEZPEN EKITALDIA URRIAREN 11n, ASTEARTEA

Ezagutu Maxixatzen Eukaldunon Elkartearen 25 urteko ibilbidea. Sareko argitalpen digital honetan argazkiak, bideoak, audio laburrak, infografiak eta bestelakoak biltzen dituen kazetaritza lan interesgarria topatuko duzu.

maxixat25n
euskaldunon elkarte

Hazi txikitik arbola handia

**MILAR
LARRAMENDI**

Etxetresna elektrikoak


**Cooking
& Chef**



WWW.MILAR.ES

WEBGUNEAN ERE EROS DITZAKEZU ETXETRESNAK.

**MILAR LARRAMENDI, BETIKO KONFIANTZAREKIN ETA HURBILTASUNAREKIN,
ARDURATUKO DA EROSITAKOAZ ZURE ETXERA ERAMATEAZ ETA JARTZEAZ.**

Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • www.milar.eus



FK

KOPISTEGIA

Inazio Iriarte, 1 • 20720 **AZKOITIA** • (Gipuzkoa)

Tel.: 943-85 20 52 • Faxe: 943-85 20 91

j.artetxe@fkkopistegia.es